# “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## 2010-11 IKASTURTEA

# EKINTZAK

## 2010-11 EKINTZEEN KATALOGOA

| OHIZKO EKINTZA | DATA |
|---|---|
| Buruhandiak (Altamira Jaiak) Txistu T. | 2010-IX- |
| Diana (Altamira Jaiak) Txistu T.) | 2010-IX- |
| Txupinazo (Sta.Kruz jaiak) Banda-Txistu. | 2010-IX- |
| Desfile (Sta.Kruz jaiak) Banda-Txis-Triki | 2010-IX- |
| Zezen suzko (Sta.Kruz jaiak) Banda | 2010-IX- |
| Musikalean kalejira Koral (Sutargi+ Txistulari T+Akordeoi T) | 2010-XI |
| Kontzertu (Sta.Zezilia) (Banda-Txistu) | 2010-XI- |
| Arrasateko Akordeoi Audizioa. | 2010-XII |
| Arrasateklo Akordeoi Leihaketa | 2010-XII |
| Gabonetako kontzertua (Banda) | 2010-XII- |
| Gabonak Santo Tomas (Txistua+ Trikitixa) | 2010-XII- |
| Gabonetako kontzertu erakustaldia (M.Mug+T.T) | 2010-XII- |
| Gabonetako kontzertua (Akordeoia+ Txinparta) | 2010-XII- |
| Gabonetako kontzertua (Orkestra+ Sutargi) | 2010-XII |
| Gabonak Hator Hator Kantatzera (Talde, Trikitixa, Txistua,..) | 2010-XII- |
| Gabonak Katekesis kalejira (Txistulari Taldea) | 2010-XII- |
| Gabonak Aiton Bordakoekin kalejira (Trikitixa Taldea) | 2010-XII- |
| Gabonak Olentzeroren kalejira (Txistulari Taldea) | 2010-XII- |
| Gabonak Errenterian Kontzertua (Txinparta-Sutargi-Orkestra) | 2010-XII- |
| Gabonak urte amaierako kopla zaharrak (Triki, koroa, MM*) | 2010-XII- |
| Errege Kabalgata (Talde) | 2010-I- |
| Donostiako Danborrada (Banda, Hezk.Musikala) | 2011-I- |
| Andoaingo Piano Audizioa | 2011-I- |
| Santa Ageda Kalejira (Taldeak, Koroa, MM*) | 2011- I- |
| Andoaingo Piano Jaialdia | 2011-I- |
| Inauteriak Ostegunzuri (Banda, Triki, Akordeoia) | 2011-III |
| Inauteriak Ostiralori- ZIRIKUAK (Txistua) | 2011-III- |
| Inauteriak Asteartebeltz- HERIO BIDAIA (Banda, H.Musik)-TXISTU | 2011-III- |
| PEDAGOGIKOA LEZO HERRI ESKOLAN | 2011-IV |
| Herri Eskolako jaia | 2011-IV |
| Dantzari Txiki Eguna Lezon | 2011-V |
| MUSIKASTE Errenterian MUSIKA BANDA | 2011-V |
| Sagardo Eguna | 2011-VI |
| Mendekosteak- ZABARRE (Taldeak) | 2011-VI |
| Mendekosteak-BANDAREN KONTZERTUA (Banda) | 2011-VI |
| Mendekosteak- ZEZENSUZKOA (Banda) | 2011-VI |
| *KONTZERTU PEDAGOGIKOAK* Kurtso Amaiera H.E. | 2011-VI |
| San Juan Sua kalejira (Banda, Trikitixa) | 2011-VI |



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## *MATRIKULA EPEA 2010-2011 IKASTURTEA*

**IRAILAREN 1 eta 2.**

Musika Eskolako
Bulegoan,
**09:30etatik 14:30etara.**

## TRESNAK

Trikitixa, panderoa, pianoa, sintetizadorea, klarinetea, saxofoia, txistua, oboea, flauta, perkusioa, biolina, biola, biolontxeloa, fliskornoa, akordeoia, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, kitarra, bateria, kitarra elektrikoa, kantua...

## INFORMAZIOA

"Tomas Garbizu" Lezoko
Udalaren Musika Eskola.
Telf.: 943- 529999
tgarbizume@telefonica.net

- IKASTURTEAREN AURKEZPENA: Irailak 3, ostirala (17:00etan).
  Presentación del curso: 3 de septiembre, viernes (17:00 horas).
- KLASE HASIERA: Irailak 6, astelehena.
  Comienzo del curso: 6 de septiembre, lunes.

# MATRIKULA EPEA ZABALIK (IRAILA 2010)

LEZO

# Tomás Garbizu reabre hoy su matrícula

## Hasta el viernes día 3 se podrán inscribir en la Escuela de Música

El día 3 por la tarde se presentará el nuevo curso 2010-2011 y el lunes 6 empezarán las clases

:: LUISMA RODRÍGUEZ

LEZO. La Escuela Municipal de Música Tomás Garbizu de Lezo ha dado a conocer que el plazo de matrícula de cara al nuevo curso 2010-2011 se reabre hoy miércoles día 1 de septiembre y permanecerá abierto hasta el próximo viernes día 3 de septiembre, inclusive.

Todas aquellas personas rezagadas que todavía no hayan efectuado la matrícula y quieren realizarla podrán hacerlo durante estos tres primeros días de septiembre de manera improrrogable.

**Amplia oferta**

Los responsables de la Escuela Municipal de Música lezoarra han señalado que la oferta académica e instrumental de la Escuela de de Música es muy amplia y la misma está abierta y dirigida a niños-as a partir de los cuatro años de edad.

Por otra parte los responsables del centro lezoarra han señalado que el próximo viernes día 3 de septiembre a partir de las cinco de la tarde va a tener lugar en la sede de la Escuela de Música la presentación del curso y en el transcurso del acto se dará a conocer el reparto de horarios, la constitución de los grupos, etc...

Por último han dado a conocer que las clases del nuevo curso darán comienzo el próximo lunes día 6 de septiembre.




**Actuación.** Alumnos del Tomás Garbizu durante un concierto celebrado el pasado curso. :: ARIZMENDI

OIARTZUN

# Gaurtik aurrera berriro jarriko da martxan Xorrola zerbitzua

Xanistebanetan 1.255 erabiltzaile izan ditu herri barruko autobus zerbitzu honek

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Gaur, irailak 1, jarriko da martxan berriz ere Xorrola herri barruko autobus zerbitzua. Abuztuan udako oporrengatik zerbitzurik ez da izan, baina gaurtik aurrera ohiko ordutegi eta geltokiekin eskainiko du zerbitzua.

Goizeko 07:10ean abiatuko da Xorrola Arraguatik (frontoitik) eta 20:10ean eskainiko du azken zerbitzua. Geltokiak betikoak izango dira: Arraguako frontoia; Talaia; Mamut; Aristegi etxea; Ugaldetxo; Ibarre; Iturriotz; Altzibar 1 eta 2; Erriberene; Elizalde eskola; anbulatorioa; Yon Oñatibia eta Mendin. Ordubetean behin, Larrezabaletako bi geltokietatik pasatuko da Xorrola.

**Festetan, gehiago**

Aurten, xanistebanetan ere Xorrola egon da. Herriko jaietan zerbitzuak izan duen erabilera ikusita, oiartzuarren artean herri barruko autobus zerbitzuak izan duen harrera ona eta nola sendotu den nabarmena da: 1.255 erabiltzaile izan ditu xanistebanetan, egunero 230 baino gehiago (iaz xanistebanetako lau egunetan 564 erabiltzaile izan zituen).




Xorrola autobusa.

# Garaipenarekin ekin dio Txost taldeak E. Abril Txapelketari

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Igandean jokatu zen E. Abril Errebote Txapelketako lehenengo jardunaldia. Zubietan lehiatutako partidan etxekoek (Zubietak) 13 eta 10 irabazi zion Luzaz Gazte Donibane Lohizuneko taldeari. Sorpresa galanta izan zen Zubietako taldeak eman zuena. Finalaurretarako ia segurutzat jotzen den Luzaz Gazte taldea mendean hartuaz. Nahiz eta etxekoek partida galtzen hasi 1-4, buelta ematea lortu zuten 8-8 eta azkenean oso sendo amaituz, garaipen garrantzitsua lortu zuten zubietarrek, berak ere finalaurretan sartzeko hautagaiak direla erakutsiaz.

Oiartzunen bi partida jokatu ziren eta lehenengoan Kapito Harri (Ustaritze) 13 eta 2 irabazi zion Zaharrer Segi (Baigorri) taldeari. Baigorriko pilotari gazteak nahiko txukun saiatu ziren, baina momentuan Euskal Herriko talde onena den Kapitok ez zien aukerarik eman. Aurten ere hauek dira faborito nagusiak, zalantzarik gabe. Migeltorena sakelaria izan zuten ustariztarrak onenetarikoa.

Bigarren partidan Txost (Oiartzun) taldeak 13 eta 6 menperatu zuen Behar Zana (Villabona)ko taldea. Bi taldeek asko zuten jokoan finalaurrekoari begira eta haseran tentsioa nabarmena izan zen. Villabonarrak askoz hobe ekin zioten partidari eta 0 - 3 aurreratu ziren. Txostekoak ordea, pixkana bere jokua berreskuratu zuten eta zortzi joko egin zituzten segidan 8 - 3. Hortik aurrera, partida erabakita gelditu zen. Txosteko L. Albisturren jokoa eta dotorezia izan ziren aipagarriak besteak beste.



Txost-eko L. Albistur jokoan. :: OSKAR ZAPIRAIN

# ALTAMIRAKO JAIAK
# (IRAILA 2010)



ALTAMIRAKO JAIAK
(IRAILA 2010)

# Bihar iritsiko da jai giroa Altamirara, eta igandera arte luzatuko da

**Jaiak** » Txupina 19:00etan botako dute auzo elkartetik; ondoren erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira auzoko kaleetan

ERIK GARTZIA

Irailaren hasieran jai giroan murgiltzen da Lezo. Asteburu honetan Altamira auzoan jaiak ospatuko dituzte eta hilaren 13an (astelehenarekin), berriz, santakrutzak hasiko dituzte.

Altamirako jaiak santakrutzen prestaketa bezala dira, baina badute izaera propioa. Horrela, Altzate auzo elkarteak ekitaldi mordoa antolatu ditu igandera arte. Ofizialki bihar arratsaldeko zazpietan hasiko diren arren, aurretik beste ekitaldi bat egingo dute auzoko pilotalekuan: igerileku txiki bilakatuko dute. Izan ere, ur eta apar festa egingo dute bertan. 16:30ean hasiko da eta txankletak eta bainujantzia eramateko eskatu dute antolatzaileek.

Ondoren, bai. Ondoren hasiko dira jaiak. Txupina botako dute auzo elkartearen egoitzatik. Erraldoien eta buruhandien konpartsa bertan izango da. Txupinazoan giroa jartzeaz arduratuko dira Zabarre eta Oroitzene erraldoiak, eta Eneko, Joannes, Kaxkagogor eta Belarrimotz buruhandiak.

Sabela betetzeko garaia iritsiko da gero. Horrela, 20:00etan, sardina jatea egingo dute. Gazteek, berriz, afaria egingo dute, 21:00etan. Afarian parte hartzeko auzo elkartean eman behar da izena. Ondoren film bat ikusteko aukera izango dute gazteek. Egoitzan bertan, 23:00etatik aurrera, musika entzuteko aukera ere izango dute. Igandean bukatuko dira jaiak.



Aurten ere, ohi bezala, ur eta apar jaia egingo dute txupinazoa baino lehen. LOREA MUGURUZA

## » ETZIKO ETA IGANDEKO EGITARAUA

**Etzi, larunbata**

- **11:00etan.** Diana zaratatsua Tomas Garbizu Musika Eskolako txistularien eskutik, Karmenetik hasita.
- **11:00etan.** Pala txapelketaren finala.
- **12:00etatik 13:30era.** Ur jokoak Altzate igerilekuetan, Serviocioren eskutik.
- **12:00etan.** XXVI. Toka Txapelketa auzo elkartean, gizonentzako eta emakumeentzat. Ordu erdi lehenago eman daiteke izena, baita 943 52 92 02 zenbakira deituta ere.
- **14:30ean.** Itsaskien lehenengo zozketa. 150 euroko balioa duen txartela izango da saria.
- **16:30ean.** IV. Truk Txapelketa, auzo elkartean. Izena emateko, tokan bezala.
- **16:00etatik 19:00etara.** Altzate igerilekuan, ur jolasak.
- **17:00etan.** Haurrentzako eta gazteentzako jolasak, pilotalekuan. Ondoren, askaria eta buruhandiak.
- **21:00etan.** Auzoko danborradan parte hartuko dutenentzako afaria, Karmen jatetxean.
- **23:00etan.** Auzoko danborrada, Karmendik abiatuta, Oriako txarangarekin. Gero zezensuzkoa auzo elkartean. Jarraian, dantzaldia txaranga berberarekin.
- **00:00etan.** Gaupasa, auzo elkartean.
- **03:00etan.** Baratxuri zopa auzo elkartean, «irauten dutenentzat».

**Etzidamu, igandea**

- **10:00etan.** Diana txarangarekin, Sagar Zulotik hasita.
- **11:00tatik 13:30era.** Ur jolasak, Altzate igerilekuan.
- **12:00etan.** Lezoko parrokian meza santua, hildako auzotarren omenez.
- **14:30ean.** Itsaskien bigarren zozketa. 150 euroko balioa duen txartela izango da saria.
- **16:30etik 19:00etara.** Altzate igerilekuan, ur jolasak.
- **16:30ean.** XXVII. Mus Txapelketa. Izena emateko, tokan eta trukean bezala.
- **16:30etik 19:00etara.** Zinta lasterketa. Bizikleta eraman behar dute parte-hartzaileek.
- **19:00etan.** Txokolate jatea, auzo elkartean.
- **20:30ean.** Txapelketetako sariak banatuko dituzte eta jaiak bukatzeko txupina botako dute.




# Saskibaloi partida, Kilometroen alde

**Kilometroak** » Lagun Aro Gipuzkoa Basketek eta Pau-Orthezek partida jokatuko dute Errenteria-Oreretan, hilaren 18an

ERREDAKZIOA

Kilometroetarako bi aste eskas faltа direnean, saskibaloi partida jokatuko dute Errenteria-Oreretan ikastolen jaialdiaren alde. Hilaren 18an izango da partida, Galtzarabordako kiroldegian. Antolatzaileek datozen egunetan jakinaraziko dute ordua.

Parte-hartzaileak ez dira nolanahikoak izango. Taldeetako bat Lagun Aro Gipuzkoa Basket izango da eta bestea, Pau-Orthez. Bi taldeak lehenengo mailan ari dira, bata ACBn eta bestea Frantziako ligan.

**SANTAKRUTZ JAIAK**
**(IRAILA 2010)**



## 400 KIZKI LAGUN BILDU NAHI DITUZTE

Oiartzungo Intxixu AEK euskaltegiak erronka jarri die herritarrei iganderako, Astigarragako marka hausteko › 3



OARSOALDEKO **hitza** .info

**Asteartea**
2010-09-14
VIII. URTEA 1.872. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.OARSOALDEKOHITZA.INFO




Herriko dantzariek ere parte hartu zuten atzo arratsaldean santakrutzen hasierako ekitaldian. ERIK GARTZIA

# HASI DIRA ESKUALDEKO AZKEN JAI HANDIAK, SANTAKRUTZAK

**LEZO** Alkate Txikiek bota zuten jaien hasierako txupina; gaur, festetako egun handienean, era guztietako ekimenak izango dira 4

# Poliziek ez dute auzipetuen aurkako frogarik aurkeztu

**OARSOALDEA** Atzo hasi zen berriz ere Madrilen 'Udalbiltza auzia', polizien deklarazioekin 7



Donostiako portuko arrapalan arrosa kolorea izan zen nagusi. E. ARAMENDIA

# Laugarren izan arren, arrosen festa Donostian

**DONIBANE** Igor Makazaga San Juango entrenatzailea pozik dago lortutakoarekin 6





Txikienentzako poneyak eta zezentxoak izango dira, esaterako. AITZOL ZABALETA

# Iristear da zazpi eguneko giroa eta zalaparta

**Santakrutzak** » Astelehenean hasiko dira Lezoko bigarren jaiak eta igandera arte luzatuko dira; tartean, denetarik izango dute lezoarrek gozatzeko

ERREDAKZIOA

Udako oporrak bukatu eta santakrutzak iritsi, ia biak bat. Eskualdeko azkeneko jai handiak iristear dira. Hiru egun besterik ez dira falta zazpi egunez luzatuko diren festez gozatzeko. Astelehenean, hilaren 13an hasi, eta igandean, hilaren 19an bukatuko dira. Lezon, beraz, giroa, jaia eta zalaparta, astebetez.

Astelehenean 19:00etan leherturo da festa, Alkate Txikiek lehen txupina botatzen dutenean. Pregoia ere irakurriko dute. Hilaren 19ko azken ekitaldia, berriz, zezensuzkoa izango da, 22:30ean. Tartean, mota guztietako eta adin guztietarako ekitaldiak aurreikusi dituzte jai batzordeko kideek.

### Aurretik ere, ekitaldiak

Jaiak astelehenean hasiko badira ere, bihar ere izango dira santakrutzen baitako ekitaldiak.

09:00etan, afizionatuen txirrindulari froga jokatuko dute, Gurutze Santuaren plazatik abiatuta. Parte-hartzaileei 12:30ean banatuko dizkiete sariak plaza berean.

Arratsaldean, berriz, kultura ekitaldia izango da Gezala Auditoriumean. 19:00etatik aurrera, Polentzi Gezala txistulariari eskainitako biografia aurkeztuko dute egileek: Joxe Juan Ugaldek egin du liburua, eta Patxi Intxaurrandietak DVDa.

Herritarrei ekitaldira animatzeko deia egin diete egileek zein udaleko eta Jai Batzordeko ordezkariek.

### Eskerrak

Jaiak hasi baino lehen, bestalde, Jai Batzordeko kideek eskerrak eman dizkiete antolatze lanetan aritu diren guztiei. Hauek izan dira egitaraua osatzen lagundu dutenak: AEK; Aiton Borda; Allerru danborrada; Allerru Pilota Taldea; Allerru Zikloturismo Taldea; Altzate Auzo Elkartea; Arrantzaleen Bazkaria; Etxerat; Gazte Asanblada; Haurtxo Haur Eskola; Hezikuntza; Ixkulin elkartea; Lezo Institutua; Lezoko euskal dantza zaleak; Lezokoak Elkartea; Murixka Dantza Eskola; Pasaia-Lezo Lizeoa; Pasaia-Lezo Lizoeko gurasoak eta Tiñelu Elkartea.

## » EGITARAUA

### Bihar, larunbata 11

- **09:00etan.** Afizionatuen txirrindulari froga, Gurutze Santuaren plazatik abiatuta.
- **12:30ean.** Txirrindulari frogaren sari banaketa, Gurutze Santuaren plazan.
- **19:00etan.** Polentzi Gezalari eskainitako liburuaren aurkezpena, Gezala Auditoriumean.

### Hilak 13, astelehena

- **19:00etan.** Txupinazoa. Alkate Txikiek jaiak hasiko dituzte, pregoia irakurriko dute eta txupina botako dute, Gurutze Santuaren plazan.
- **Segidan.** Tomas Garbizu Musika Eskolako Musika Bandak eta Lezoko Txistularien Taldeak, Tomas Garbizuren *Lezoko Herria* ereserkia joko dute, Gurutze Santuaren plazan.
- **Ondoren.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **19:30ean.** *Gurutze Santuaren Bezperak.*
- **20:00etan.** Presoen eta iheslarien aldeko kartelada, Etxeratek deituta.
- **23:00etan.** Dantzaldia Modestorekin, Gurutze Santuaren plazan.
- **00:00etan.** Helduen danborrada. Parte-hartzaileak: Allerru, Altzate, Ixkulin eta Tiñelu.
- **00:30ean.** Dantzaldiaren jarraipena.

### Hilak 14, asteartea

- **10:00etan.** Diana.
- **10:00etan.** Zezentxoak eta poneyak, Goiko plazan.
- **11:00etan.** Meza nagusia.
- **11:00etan.** Gazteentzat, zinta lasterketa, Goiko plazan.
- **12:00etan.** Herri kirol erakustaldia, Gurutze Santuaren plazan. Harrian: Iñaki Perurena, Inaxio Perurena eta Agustin Landarbide. Aizkoran: Fausto Mugerza eta Angel Arrospide gipuzkoarrak; eta Donato eta Oihan Larretxea aitaseme nafarrak.
- **12:00etan.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **13:00etan.** Arrantzaleen elkartea, Gurutze Santuaren plazan kalejira egiteko.
- **14:00etan.** Bazkaria erretiratuentzat, Lintzirinen (65 urtetik gorakoentzat).
- **15:00etan.** Arrantzaleen bazkaria, Irurtzun jatetxean.
- **17:00etan.** Haurrentzako jolasak Kulki taldearekin, Euskal Herria plazan.
- **17:00etan.** Josetxo Etxandi XXXV. Oroitaldiko Afizionatu Mailako Pilota Txapelketaren finala.
- **18:00etan.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **19:30ean.** Erromeria Laja Bigarrenarekin, Gurutze Santuaren plazan.
- **22:30ean.** Zezensuzkoa, Gurutze Santuaren plazan.
- **00:30ean.** Erromeriaren jarraipena.

### Hilak 15, asteazkena

- **09:00etan.** Ganadu feria, Gurutze Santuaren plazan.
- **11:00etan.** Ganadu feriaren sari banaketa, Gurutze Santuaren plazan.
- **12:00etan.** Idi proba: goizeko saioa, probalekuan.
- **14:00etan.** Baserritarren bazkaria, Ixkulinen eta Tiñelun.
- **17:30ean.** Idi proba: arratsaldeko saioa, probalekuan.
- **19:00etan.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **19:30ean.** Bertso saioa. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Miren Amuriza eta Julio Soto bertsolarien emanaldia, Gurutze Santuaren plazan. Gai jartzailea: Jon Zaldua.

### Hilak 16, osteguna

- **17:00etan.** Karaokea eta apar festa, Saldise plazan.

### Hilak 17, ostirala

- **17:00etan.** Haur parkea: eskalatzeko piramidea eta pedaledun kart ibilbidea, Euskal Herria plazan.
- **18:00etan.** Gazteen mus txapelketa, Ibaiondon.
- **19:00etan.** Gazteen poker txapelketa, Ibaiondon.
- **19:00etan.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **20:00etan.** Presoen eta iheslarien aldeko kartelada, Etxeratek deituta.
- **21:00etan.** Gazte afaria, Ibaiondon.
- **23:00etan.** Dantzaldia Alaiki taldearekin, Gurutze Santuaren plazan.
- **00:00etan.** Rock kontzertua, honako taldeekin: Okensey, Yellowpage eta Apartheid, Saldise plazan.

### Hilak 18, larunbata

- **10:00etan.** Diana.
- **11:00etan.** Haurrentzako zezentxoak eta poneyak, Gurutze Santuaren plazan.
- **11:00etan.** XI. Marmitako Txapelketaren hasiera, Saldise plazan.
- **11:00etan.** 3x3 saskibaloi txapelketa, Goiko plazan.
- **11:30ean.** Muxiko Eguna: *Lezoko euskal dantzazaleak*. Dantzari ekingo diote, Saldise plazatik abiatuta.
- **12:00etan.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **14:00etan.** Herri bazkaria, Saldise plazan.
- **16:00etan.** Skate erakustaldia, Euskal Herria plazan.
- **16:30ean.** Truk txapelketa, Tiñelu elkartean.
- **18:00etan.** Josetxo Etxandi XXXV. Oroitaldiko Herri Mailako Pilota Txapelketaren finala.
- **18:30ean.** Buruhandien eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **22:00etan.** Dantzaldia Erlaxi taldearekin, Gurutze Santuaren plazan.
- **00:00etan.** Rock kontzertua, honako taldeekin: Governors eta Skateitan, Saldise plazan.

### Hilak 19, igandea

- **10:00etan.** Diana.
- **11:00etan.** Totxa txapelketa, Kaialden.
- **12:00etan.** Inudeen eta Artzainen desfilea, Lopenetik abiatuta.
- **17:00etan.** Haur parkea: saskibaloi pista, eskolada-murru puzgarria, ludoteka... Euskal Herria plazan.
- **18:00etan.** Buruhandien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- **22:00etan.** Tomas Garbizu Musika Eskolako Musika Bandaren emanaldia, Gurutze Santuaren plazan.
- **22:30ean.** Zezensuzkoa, Gurutze Santuaren plazan.

@ **Egitaraua.** Gure webgunetik jaitsi dezakezue: **www.oarsoaldekohitza.info**







PASAI, S.L.L
• Galdaragintza
• Soldadura eta mekanizazioa
• Tutuerien instalazioak
• Depositoak presioan
• Mantenimendu industriala
• Itsasontzien konponketak
Industrialdea, 6-27 pabilioia
Tel.: 943 52 61 94
Faxa: 943 52 33 16 - LEZO

# KENPO IKASTARO GEHIAGO, HONBU ZENTROAN

Oiartzungo Japoniar Zentro Kulturalak ordutegia zabaldu du, kenpo kirola ikasteko eskaerak gora egin duelako 7

OARSOALDEKO hitza .info

Asteartea
2010-09-07

VIII.URTEA 1.868.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.OARSOALDEKOHITZA.INFO



San Juango arraunlariak Donostiako portura iristen, pozik. Gustura daude egindako lanarekin. JON URBE/ARGAZKI PRESS

# EUREN AURREIKUSPEN GUZTIAK HAUTSI DITUZTE ARROSEK

**DONIBANE** Kontxako hirugarren postuarekin, amesten ez zutena lortu dutela diote; datorren igandean itsasoak lagundu diezaien nahi dute 3



Egileak eta udal ordezkariak, atzo, prentsari biografia aurkeztean. ERIK GARTZIA

# Liburua eta DVDa, Polentzi Gezala txistulariaren omenez

**LEZO** Larunbatean aurkeztuko dituzte biak, 19:00etan, Gezala Auditoriumean 6

## Beraun-Kaputxinoetako igerilekuetako lanak datorren hilabetean hasiko dituzte

**ERRENTERIA-ORERETA** Udalak dio %3,8 bakarrik finantzatuko duela, finantziazio gehiena kanpotik lortu duelako; Ezker Batuak ez du sinisten 5

## Olioa biltzeko edukiontziak, Errenteria-Oreretan, Lezon eta Pasaian

**OARSOALDEA** Olioa birziklatu eta autoentzako biodiesela sortuko dute 6

## Kultura Saila Kapitain Etxetik Errenteria Hiria Kulturgunera lekualdatu dute

**ERRENTERIA-ORERETA** Herriko kultur ekintzak hobe kudeatu nahi ditu Udalak 2




argazki lehiaketa 10

bidali zure oporretako argazkiak
epea: irailaren 17ra arte

Irabazleak:
300 euroko bonoa,
Valentin dendan

Valentin FOTO/BIDEOA Biteri, 8 ORERETA-ERRENTERIA Tel.: 943 51 66 42

- Udakoak izan behar dute.
- Argitaratu gabeak, eta norberak egindakoak.
- Paperean eta formatu digitalean onartzen dira.
- Ezaugarriak: 13x18 cmko tamaina gutxienez; 250eko bereizmena -erresoluzioa- gutxienez.
- Datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Argazkia non eta noiz atera den eta ikusten dena adierazi. Argazkiari izenburua jarri.
- Saritutako argazkiak artxiboan gordeko dira, eta HITZA-k behar dituenean erabiliko ditu.

Errenteria-Oreretako argazki onenaren egileak 50 euroko bonoa jasoko du Valentin argazki dendan.
Lehen lau sailkatuek HITZA-ren elastiko bana irabaziko dute.
Epaimahaia: Valentin foto/bideo denda

Bidali argazkiak posta elektronikoz *oarsoaldea@oarsoaldekohitza.info*-ra edo posta arrunt bidez Errenteria-Oreretako Santa Klara,22 helbidera

# Polentzi Gezala txistulariaren biografia aurkeztuko dute larunbatean

**Lezo** » Joxe Juan Ugaldek idatzi du liburua; Patxi Intxaurrandietak DVDa egin du, Gezalaren bizitzaren irudiekin

ERIK GARTZIA



Udaleko ordezkariek eta egileek atzo aurkeztu zioten prentsari biografia. E.G.

Larunbata honetan Polentzi Gezala (Lezo, 1919; Coarraze, Biarno, Okzitania, 2008) txistulariaren biografia aurkeztuko dute bere jaioterrian. Eta leku ezin aproposagoan egingo dute aurkezpena: Gezalaren omenezko auditorioan. Bertan dantzaz, musikaz eta irudiez osatutako ikuskizuna egingo dute eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara hurbil daitezen. Biografia aurkezteko ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Joxe Juan Ugalde kazetari lezoarrak idatzi du *Polentzi Gezala* biografia. Liburuaz gain, DVDa ere aurkeztuko dute larunbateko ekitaldian. DVDa egiteko ardura, berriz, Patxi Intxarraundietarena izan da. Horrez gain, Ugaldek idatzi duen liburuan ere artikulua idatzi du, Tomas Garbizuren eta Polentzi Gezalaren arteko uztartzea azalduz.

Intxaurrandietaz gain, beste hainbatek ere egin dute ekarpena biografian: hitzaurreak egin dituzte Jose Ignazio Ansorena txistulariak eta Iñigo eta Imanol Esnaolak (Kultura zinegotziak eta Kultura zinegotzi ohiak). Liburuaren amaieran, berriz, artikulu bana idatzi dute Estanis Karrera Lezoko Txistulari Taldeko zuzendariak, eta Daniel Moers zientzialari frantsesak eta Gezalaren txistu ikasle izandakoak.

### Liburua, hiru hizkuntzatan

Polentzi Gezalaren biografia hiru hizkuntzatan idatzi dute: euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. Trataera nagusia duena euskara da —«Euskal Herriko berezko hizkuntza delako», argitu du Ugaldek—, baina beste bi hizkuntzek badute bere txokoa. Ugaldek adierazi duenez, «aspalditik» zuen Gezalaren biografia egiteko ideia eta horrela aitortu zion txistulariari berari. Gezalak, gainera, biografia Ugaldek berak egitea nahi zuela esan zion. Hori bai: hiru hizkuntzetan izateko baldintzarekin jarri zion txistulariak.

Horrela, Garazi Ugalde Pikabeak itzuli du euskaratik gaztelaniara. Euskaratik frantsesera itzultzeko ardura, berriz, Peio Heguyk hartu du.

### Bere bizitzaren aro guztiak

Joxe Juan Ugaldek idatzitako biografiak Polentzi Gezalaren bizitzaren aro guztiak bildu ditu. Horrela, haurtzaroa, gezalatarrak hainbeste markatu zituen erbestea eta gaztaroa azaltzen ditu Ugaldek. Horrez gain, parte hartu zuen hainbat elkarte kulturalen (Etorki, Oldarra...) eta izan zituen hainbat kideren (Gene Yurre eta Filipe Oihanburu) berri ere eman du biografian.

Intxaurrandietaren lanari dagokionez, sei zatitan banatu du DVDa: familia artean bildutako irudiak; *Bazterrak alaitzen* izenekoa; Lezoko herriak eta EITBk Kursaalen egin zizkioten bi omenaldi; Aita semeak bat, Jon Mirena semearekin azaltzen dena, eta argazki bilduma bat. Guztira, 200 argazki baino gehiago bildu dituzte bai bertan, baita liburuan ere.

berria
Zerga bilketa uste baino hobea
hondoratzea gelditu den erakus
Gozatu berria
Irudikatu mundua
BERRIArekin

Egin
harpidedun
eta jaso
ARGAZKI KAMERA
HAU OPARI.




Ezaugarriak:
- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantalla, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren bereizmen ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzeko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE 32C450
Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNIe+ irudi prozesadorea. USB 2.0 ataka bat du, HDMI hargune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean,
**telebista hau zotz egingo dugu**
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

elektra
www.elektragailuak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info
AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria



Eskualdeko hiru herritan jarri dituzte edukiontziak. Irudikoa Lezon dago. N. VEGA

# Olioa biltzeko edukiontzioak jarri dituzte eskualdean

**Hiri hondakinak** » San Markoseko Mankomunitateak jarri ditu; erabilitako sukaldeko olioa bakarrik bota daiteke

ERREDAKZIOA

San Markoseko Mankomunitateak olioa biltzeko edukiontziak jarri ditu sei herritan. Horietako hiru Oarsoaldekoak dira: Errenteria-Orereta, Pasaia eta Lezo. Gainontzeko hirurak Urnieta, Lasarte-Oria eta Astigarraga dira.

Sukaldean erabilitako olioa bota daiteke bakarrik edukiontzi horietan, autoen olioarekin nahastu ezin daitekeelako. Edukiontzi bereziak jarri dituzte erabilitako olioa alferrik gal ez dadin, edo arraskako isurbidetik botata ibaiak eta itsasoa kutsatu ez ditzan. Erabilitako olio hori birziklatuko dute eta ibilgailuentzako biodieselа sortuko dute.

Beirazkoak ez diren potoetan biltzeko gomendatu du Mankomunitateak, bestela hautsi egin daitezkeelako eta olioa isuri. Hala ere, edukiontzi horiek isuririk ez izateko prestatuta daudela ziurtatu dute.

### Informazioa kanpaina, abian

Olio bilketaz gehiago informatzeko eskuorriak banatzen ari da Mankomunitatea etxez etxe. Bestalde, orain arte erabilitako olioa jasotzen zuen furgonetak bere horretan jarraituko du, alegia, Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietatik pasatuko da.



# TXISTUTIK LIBURURA

Polentzi Gezalak bizitza osoa pasatu zuen txistua jotzen. Irudian, Miarritzen (Lapurdin) Etorburu Abesbatzarekin eskaini zuen emanaldia. OARSOALDEKO HITZA

**Lezo** » Polentzi Gezalaren biografia idatzi du Joxe Juan Ugaldek; bihar aurkeztuko dute Lezoko auditorioan eta haren familia omenduko dute

ERIK GARTZIA

Lezotik mundura; mundutik Lezora. Txistuaren doinuak mundu zabalean ezagutarazi zituen Polentzi Gezalak (Lezo, 1919-Coarraze, Biarno, Okzitania, 2008). Bizipen asko eduki zituen Gezalak eta horiek guztiak, edo ahal izan dituenak behintzat, biltzen saiatu da Joxe Juan Ugalde Gezalaren herkide eta kazetaria. Lanaren emaitza bihar aurkeztuko dute, txistulariaren beraren izena daraman auditoriumean. Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Hala ere, biharko ekitaldia ez dute aurkezpen soilera mugatuko. Horrela, ikuskizuna prestatu dute: musika, dantza, hitzaldiak eta irudiak. Bertan parte hartuko dutenen artean daude Lezoko dantzariak eta txistulariak; baita Patxi Intxaurrandieta (biografiarako DVDa ere egin du) eta Jose Ignazio Ansorena eta Garikoitz Mendizabal txistulariak ere, beste hainbaten artean. Ikuskizun hori Polentzi Gezalaren senideak omentzeko baliatuko dute. Gainera, antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte Gezala Auditoriumera hurbil daitezen.






## Dantzaren ondoren, txistua

Gezalari berari esan zion Ugaldek haren bizitzaren biografia idatzi nahi zuela. Gezalak ere nahi hori adierazi zion. Hala ere, baldintza bakarra jarri zion: hiru hizkuntzatan idaztea. Horrela, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz argitaratu dute. Ugalderen testua Garazi Ugalde Pikabeak itzuli du gaztelaniara eta Peio Heguyk, berriz, frantsesera.

Ugaldek adierazi duenez, *Lezo dantzari* liburua idatzi ondoren hasi zen biografia idazten. Ez zen hutsetik hasi, ordea. «Laguna nuen Polentzi. Tertulia bat baino gehiago egin genituen Kale Nagusiko Alai-Etxeko egongela txikian», esan du Ugaldek. Hala ere, ez zuela «ondo ezagutzen» konturatu zen. «Ikerketak eta elkarrizketak egiten hasi nintzenean ohartu nintzen ez nuela batere ezagutzen. Uste nuena baino gehiago zen Polentzi», aitortu du. Arrazoirik bazegoen: «Berez Polentzik ez zuen behar bezala adierazi non ibili zen, zein agertokitara igo zen eta zein izan zen bere ibilbidea. Mundu osoan ibili zen Polentzi, eszenatoki ikaragarrietan, eta txalo zaparrada handiak jasotakoa da».

**Filipe Oihanburu eta Gene Yurre dantzarien bizitza ere jaso dute biografian**

**Annie Gezala alargunari eskaini diote liburua, euskal kulturari dion atxikimenduagatik**

Nahiko «dispertsoa» zela deskribatu du kazetariak: «Agertoki batean jo zuela esaten zuen eta segituan hasten zen haurtzaroko kontuak esaten». Horregatik, informazio hori guztia «ordenatu» behar zela pentsatu zuen Ugaldek.

Horretarako laguntza izan du biografiaren egileak: Gene Yurre dantzaria zenarena eta Filipe Oihanburu Etorki Dantza Taldeko zuzendariarena. «Bi dantzari handi horien bizitza jasota, Polentziren dimentsioa islatu nahi izan dugu», esan du Ugaldek: «Alegia, ez Polentzi bakarrik, baizik eta bere inguruan zebiltzanak. Gainera, oso giro aurrerakoia zen: esaten dute Filipe Oihanburuk aurreratu egin zuela 68ko Maiatza».

Baina biografia egiteko, batez ere, Annie Gezala alargunaren laguntza jaso du Ugaldek. Esker onez, berari eskaini dio Ugaldek liburua. Gezalak Reveil Basque-Bearnais Dantza Taldean ezagutu zuen gerora bere emazte izango zena. Dantza talde biarnotarra zen Reveil Basque-Bearnais, baina euskal kulturarekiko eta Euskal Herriarekiko atxikimendu handia du Annie Gezalak, Ugaldek argitu duenez. Horregatik ere eskaini dio senarra zenaren biografia.

Oihanburuz, Yurrez eta Annie alargunaz gain, Iñigo eta Imanol Esnaolak (egungo Kultura zinegotziak, eta 1999-2003 legegintzaldian Kultura zinegotzi izandakoak) ere parte hartu dute liburuan:


Jende askorekin kolaboratu zuen Gezalak, baita bere semeekin ere (irudian Jean-Marie semearekin). OARSOALDEKO HITZA

hitzaurrea egin dute. Beste hitzaurre bat eginez Jose Ignazio Ansorena txistulariak ere egin du ekarpena. Gainera, Patxi Intxaurrandietak ere artikulua idatzi du, Tomas Garbizu eta Gezalaren arteko uztarduraz. Estanis Karrera Lezoko Txistulari Bandako zuzendariak eta Daniel Moers zientzialari eta Gezalaren ikasle izandakoak ere idatzi dute artikulu bana. Karrerak haur zela Polentzi nola ezagutu zuen eta zeukan harremanaz hitz egiten du liburuan. Moers-i dagokionez, honakoa argitu du Ugaldek: «Polentziren ikasletzat jo genezaken zientzialari frantsesa da. Polentzi txistua jotzen ikusi zuen, eta erdi-autodidakta, eta beste erdia gertakizun historikoengatik, dantzan ikasi zuen».

Lan horren guztiaren emaitza 272 orrialdeko liburua da. Ez da testu hutsa, 200 argazkik baino gehiagok ilustratzen baitute biografia.

**Hainbat arotan zatituta**

Biografiak Gezalaren bizitzaren hainbat aro bildu ditu. Lezoko txistulariaren haurtzarotik, erbesteko garaitik eta gaztarotik hasten da liburua. Ondoren, Etorki eta Oldarra dantza taldeekin izan zuen harremana bildu du Ugaldek. Txistua jotzen non ibili zen irakur daiteke biografian, eta ez dira nola nahiko tokiak: Londres, New York edo Paris, esaterako.

Biografiaren egileak argi utzi nahi izan du Gezalaren ibilbide artistikoa ez zela euskal dantzara bakarrik mugatu. Beste hainbat artistarekin ere izan zuen harremana. «Garai hartan izen handia zuten Mariemmak, Carmen Amayak edota Manolita y Rafaelek. Orain, 2010 urtean, guretzako ez dira hain ezagunak izango izen horiek, baina bazuten sona orduan», zehaztu du Ugaldek. Horrez gain Ballet l'Ensemble de Parisekin edo Izarra dantza taldeekin ere aritu zen Gezala, eta hala bildu du biografian.

Pierre eta Jean-Marie («Lezon ezagunagoa da Jon Mirena izenaz», argitu du kazetariak) semeekin egindako ibilbidea ere bildu dute biografian: «Pierrek zuzentzen zuen Jeiki taldearekin eta Jon Mirenak zuzentzen zuen Anaiki abesbatzarekin ere kolaboratu zuen Polentzik».

Gezalaren diskografia ere bildu dute: hemezortzi disko dira guztira, horietatik zazpi propioak. Horien guztien fitxa eta azala agertzen da liburuaren bukaera aldera. Sariak ere jaso zituen Gezalak, eta horien artean dago Parisko Udalak 1977an eman zion Zientzien, Letren eta Arteen Urrezko Domina. Jaso zituen omenaldiek ere badute bere txokoa.

Ugalderen arabera, Polentzi Gezala biografiak «euskal sena handia, batez ere musikala du». Bihar Lezoko Auditoriumera hurbiltzen direnek hori frogatzeko aukera dute. Eta, bide batez, txistularia zena eta bere familia omentzeko.

# Liburuarekin batera DVDa egin dute, Gezalaren irudiekin

**Lezo** » Patxi Intxaurrandietak egin du DVDa; Gezalaren bizitzari buruzko sei galeria ditu euskarri digitalak

E. GARTZIA

Liburuarekin batera, Polentzi Gezalaren bizitzaren irudiak agertzen diren DVDa prestatu du Patxi Intxaurrandieta lezoarrak. Joxe Juan Ugalderen arabera, «entsalada batean falta ezin den pieza da Intxaurrandieta eta, gainera, instituzio bat da Lezoko musika munduan».

Intxaurrandietak berak azaldu duenez, «hasieran testua bakarrik jaso nuen. Gezalari buruz nekizkien gauza asko berretsi nituen, eta ez nekienak jakin. Hala ere, irudiak falta ziren». Euskarri digital bat egitea erabaki zuela aipatu du, «txistulari baten bizitza islatzeko modu egokiena dela iruditzen zaidalako».

Horrela, VHS formatuko bideo asko jaso zituen, eta banan-banan ikusi. DVDari forma emateko garaian, sei aukerako menua egitea erabaki zuen Intxarraundietak. Horrela, Gezalaren bizitzaren sei aro jaso ditu bertan: familia arteko giroarena («oso polita», egilearen arabera); EITBk Kursaalean eta Lezoko herriak egin zioten omenaldi bana; *Bazterrak alaitzen* izeneko bideoa; *Aita semeak bat* (Jean-Marie semearekin) eta bere bizitzaren argazki bilduma bat.



Patxi Intxaurrandieta DVDaren egilea; Iñigo Esnaola zinegotzia; Haritz Salaberria alkatea eta Joxe Juan Ugalde liburuaren egilea. ERIK GARTZIA





# “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## MUSIKALEAN
## KALEJIRA 2010

**AZAROAK 18, OSTEGUNA**

“Tomas Garbizu” LUME-ko

**TXISTULARI TALDEA**

eta

**AKORDEOI TALDEA**

Lezoko kaleetan, 20:00etan

MUSIKALEAN
(AZAROA 2010)

# Datorren asteazkenean inauguratuko dituzte babespeko apartamentuak

Eguneko Zentroaren lagapena jorratuko du Udalbatzak abenduan egingo duten ohiko udalbatzarrean

**Erik Gartzia**

Datorren asteazkenean, hilaren 24an, babespeko etxebizitzak inauguratzeko ekitaldia egingo dute. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta nahi duten herritarrek har dezakete parte bertan. Etxebizitza horiek bisitatuko dituzte lehendabizi eta ondoren askari txikia egingo dute bertan.

Etxebizitzen obra osoa bukatuta baldin badago ere, oraindik ekipamenduko zati batzuk falta direla jakinarazi du Haritz Salaberria Lezoko alkateak. Horrez gain, bertan oraindik inor bizi ez dela azaldu du.

Salaberriak esan du babespeko etxebizitzetan onartua izateko baldintzak ez direla etxebizitza tasatuen antzekoak: «Prozedura ezberdinak dira. Babespeko etxebizitza bat eskuratzeko benetako beharra izan behar dute eskatzaileek, eta Ongizate Saileko bulegoan eman behar dute izena. Informazio gehiago ere bertan emango dute». Alkateak azaldu duenez, gizarte teknikari batek aztertuko du eskaera egiten duenaren egoera; horren arabera, eskaera hori onartuko dute, ala ez. Gero kontratua egingo lukete eta pixkanaka etxebizitzak betetzen joango dira beharra duten horiek. «Ez dira denak batera beteko, beharrarekin betetzen joango dira».

Guztira zortzi dira babespeko etxebizitzak. Lau, pertsona bakarrarentzako izango dira eta gainontzeko lauak birentzako izango dira. Hala ere, etxe guztiak ez dira berdinak. «Hiruk logela bakarra izango dute eta beste batek bi logela izango ditu. Azken kasu horretan, bikote ez diren lagunentzako izango da etxebizitza, anai-arrebentzat, adibidez», esan du Salaberriak.



Udaletxeko sarreran dago postontzietako bat. ERIK GARTZIA

## Eguneko zentroa

Babespeko etxebizitzen inaugurazio ekitaldia baino ordubete lehenago, 18:00etan, Gizarte Zerbitzuen Batzordea egingo dute udaletxeko pleno aretoan. Bilera horretan, besteak beste, eguneko zentroari zein izen jarriko dioten aztertuko dute. Horretarako herritarrek euren proposamenak utzi ahal izango dituzte. Bi postontzi jarri dituzte horretarako, udaletxearen sarreran eta Aiton Bordan. Bertan daude proposamena idazteko eskuorriak.

Abenduaren 1ean ohiko udalbatzarra egingo du Lezoko Udalak. Bertan eguneko zentroaren gaia jorratuko dute. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari lagapena ematea aztertuko dute zinegotziek.

Ildo horretan, Salaberriak esan du Udalak egin beharreko guztia egin duela. «Diru laguntzak jaso ditugu eta erabili ditugu», gaineratu du. Plazak eta ekipamendua esleitu behar dituzte datorren urtean.

egartzia@hitza.info


Santa Zeziliaren kontzertua etzi izango da, Gezala Auditoriumean. I. BERRIO

# 'Musikalean' ospatuko dute gaur arratsaldean

Santa Zezilia Eguneko kontzertua etzi egingo dute, Gezala Auditoriumean, 12:30etik aurrera

**E. Gartzia**

Datorren astelehenean musikariaren zaindariaren, Santa Zeziliaren, eguna da. Horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Lezon.

Lehenengo ekitaldia gaur bertan izango da. Iluntzean *Musikalean* ekitaldia egingo dute, 20:00etatik aurrera. Tomas Garbizu Lezoko Musika Eskolaren egoitzatik aterako dira ordu horretan. Kalez kale joango dira. Gurutze Santuaren plazaraino joango dira txistu eta akordeoi taldeetako kideak, kalejiran. Udaletxearen aurrean hainbat pieza joko dituzte bi talde horietako kideek. Ondoren, Tomas Garbizu Musika Eskolara itzuliko dira musikariak.

## Etzi, kontzertua

Kalejira gaur arratsaldean bada ere, ekitaldi nagusia etzi egingo dute. Santa Zezilia Eguna ez izan arren, egun horretan egingo dute zaindariaren omenezko kontzertua.

Gezala Auditoriumean izango da kontzertua. 12:30ean hasiko da eta musika eskolako musika banda eta txistularien taldea ariko dira bertan.

lezo@hitza.info

# Jai Batzordea gaur arratsaldean bilduko da, Kultura Aretoan

**E. Gartzia** Lezo

Gaur arratsaldean Jai Batzordeak bilera egingo du Kultura Aretoan, 19:00etatik aurrera. Horrela, Gabonetako egitaraua prestatzeko bilera izango da. Orain dela bi aste egin zuten lehenengo bilera.

Egitaraua antolatzeaz gain, liburu eta disko azoka ere izango dute hizpide. Orain arte Etxerat-ek antolatzen zuen baina aurten ez da euren esku egongo. Norbaitek antolatu nahi badu, gaur aurkez dezake bere burua.






# MUSIKALEAN (AZAROA 2010)

Oarso-Bidasoa





## MUSIKAK EZ DIO HUTSIK EGIN SANTA ZEZILIARI

Musikariek euren eguna ospatu zuten atzo, Santa Zezilia. Hala ere, asteburuan, musikarien zaindariaren egunaren harira, kontzertu asko egin zituzten, Oarsoaldean eta baita Bidasoan ere. Larunbat goizean, esaterako, Lezoko Gezala Auditoriumean Tomas Garbizu Musika Eskolako bandako eta txistulari taldeko kideek musika emanaldia eskaini zuten. Errenteria-Oreretan, berriz, Jasokundeko Amaren parrokian bertako organoa estreinatu zuten. EIHARTZE ARAMENDIA/HITZA

Oiartzun



## BERTSO SAIO LIZUNA

Larunbatean bertso saio berezia izan zen Oiartzunen. Ohikoak baino bertso erotikoagoak abestu zituzten: Bertso Lizunen Gaua izan zen. Alaia Martin eta Ander Lizarralde herritarrak Xabier Silveirarekin eta Unai Gaztelumendirekin batera aritu ziren. Ederki afaltzeaz gain, Kataxulo Gaztetxian errima beroak izan ziren. HITZA

Oiartzun



## AZKUEREN OMENEZ, KANTU KANTARI

Musikarien Eguneko ekimenez gain, larunbatean Jose Manuel Azkueren omenezko bigarren memoriala egin zuten Doneztebe parrokian. Haizea Muñoz sopranoak, eta Ana B. Garcia eta Loreto Aramendi organo jotzaileek eskaini zuten emanaldia. OSKAR ZAPIRAIN

Errenteria-Orereta




## KIXKURREN ALDEKO MENDI MARTXA

Eguraldia ez zuten lagun eduki, baina herenegun goizean zenbait oreretarrek Urdaburura mendi martxa egin zuten Jokin Urain *Kixkur* herriko presoari *Parot doktrina* ezarri diotela salatzeko. Ibilaldiaren ondoren, Malbazarreko bordan hamaiketako oparoa egin zuten: txorizoa, salda... HITZA

MENDIOLA
aroztegia, S.L.U
SUKALDEKO ALTZARIAK
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ONTZIEN KONPONKETA ETA MUNTAIA
ISOLAMENDUAK
Egiburuberri poligonoa, planta 1
Modulo 13 1p
Errenteria
Euskadi Etorbidea, 53
Tel./Faxa: 943 39 27 22
Tel.: 943 39 70 84
Faxa: 943 40 42 86
carpmendiola@euskalnet.net



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## SANTA ZEZILIETAKO KONTZERTUA 2010

**AZAROAK 20, LARUNBATA**

**TXISTULARI BANDA, METAL BOSKOTEA ETA MUSIKA BANDA.**

**SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**

**12:30etan,**

**Gezala Auditorioa.**



TOMAS GARBIZU
LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA
Tel: 943 52 99 99 · tgarbizume@telefonica.net



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

# SANTA ZEZILIETAKO KONTZERTUA 2010

- **Eguna** / Día:
  **Azaroak 20, Larunbata.**
  20 de Noviembre, Sábado.
- **Ordua** / Hora:
  **Eguerdiko 12:30etan.**
  12:30 del mediodía.
- **Lekua** / Lugar:
  **Gezala Auditorioa.**
  Auditorio Gezala.

TOMAS GARBIZU LEZOKO UDALAREN
MUSIKA ESKOLA
ARRETXENE KALEA, 3 - Tel. 943529999
E-maila: tgarbizume@telefonica.net
20100 Lezo (Gipuzkoa)

## TXISTULARI BANDA ETA MUSIKA BANDA.

- GOIZEKO IZARRA** .......................... J.M. Gurrutxaga.
- NESKATXARENA* ................................ Luis Aranburu.
- ISIL ISILIK* ................................ Mold.: J.I. Ansorena.
- SANTANA (Flor d'luna, Oye como va)Mold.: Giancarlo Gazzani.
- AMERICAN PIE ....... Don McLean. Mold.: Ron Sebregts.
- CLOCKWISE ............................................Colin Cowles.
- COOL DUDE ........................................... Darrol Barry.
- FRENCH SUITE.................................... Elliot del Borgo.
- SANTA ZEZILIA ** (Kalejira).....................B. Laskurain.

**Zuzendaria: Estanis Karrera.**

*** Txistulari Banda eta Metal Boskotea.**

**** Txistulari Taldea- Musika Banda.**

# SANTA ZEZILIA (AZAROA 2010)

LEZO



**Concierto.** Un momento de la actuación ayer en el auditorio Gezala. :: FOTOS: ARIZMENDI



Los metales tuvieron especial protagonismo.

## Tomás Garbizu, por Santa Cecilia

:: LUISMA RODRÍGUEZ

LEZO. Los alumnos de la Escuela Municipal de Música Tomás Garbizu de Lezo ofrecieron ayer el tradicional concierto en homenaje a Santa Cecilia, patrona de los músicos, cuya festividad se celebra mañana lunes día 22 de noviembre.

Dicho concierto se celebró al mediodía en el auditorio Gezala y el acto contó con la presencia de los componentes de la Banda de Txistularis, de un Quinteto de Metales y de la Banda de Música.

**Musikalean**

Esta actuación fue el colofón a una intensa semana de actividades que arrancó el pasado jueves cuando los miembros del Tomás Garbizu secundaron el acto Musikalean, para sacar la música a la calle, convocado por las Escuelas de Música de Euskal Herria y en el que se celebró una kalejira desde la sede del Tomás Garbizu por las calles del centro de la localidad.



La actuación puso el colofón a una semana llena de actividades.

OIARTZUN



Elizalde Ikastetxeko ikasleak ingeleseko barnetegian.

## Elizalde Ikastetxeko ikasleak ingeleseko barnetegian izan dira

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Elizalde Ikastetxeko seigarren mailako ikasleak, Errenteriako Koldo Mitxelenako ikasleekin batera, aste bete eman dute Orioko aterpetxean Hezkuntza Sailak antolatu dituen Ingelesean Murgiltzeko Egonaldietan.

Gaur egun atzerriko hizkuntzak jakiteak berebiziko garrantzia du, horregatik Elizalde Ikastetxean atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatu nahi dute. Hizkuntzan murgiltzeko egonaldien programak, ikasleek ikasgelatik kanpoko egoera komunikatiboetan eta ohiko komunikazio-harremanetan, atzerriko hizkuntza erabiltzeko aukera izatea du helburu.

Ikasleak irakasle natiboen gidaritzapean egon dira egonaldi osoan zehar, horrez gain, eskolako ingelesezko irakasle baten eta tutoreen laguntza jaso dute.

Programa honen helburua lortzeko, hau da, elkarren arteko komunikazioa erabat ingelesez eta motibagarria izan dadin, ekintza didaktiko ugari antolatu zituzten. Lan-taldeak sortu ondoren, bakoitzak ingelesez hitz egiten duen herrialde baten izena hartu zuen: Kanada, Irlanda, Ingalaterra... Eta honela, egoera komunikatibo desberdinak sortu eta bakoitzari dagokion hiztegi espezifikoa landu zuten.

Egunero gai baten inguruan prestatu zituzten jarduerak: Artearen inguruan, collageak eta margolanak eginez. Sukaldaritzari dagokionez errezeta desberdinak aztertu eta prestatu zituzten. Kirolak ere bere tartea izan zuen taldeen artean antolatutako Olinpiaden bitartez. Abesteko, dantzatzeko eta karaokean aritzeko aukera ere izan zuten. Zientziari tarte bat eskaini zioten, esperimentuak egin, proiekzioak ikusi, informazioa bilatu eta ondoren ikasitakoa besteei azalduz. Eta azkenik, hain gustuko duten informatika munduan ere hainbat jarduera burutu zituzten.

Ikasleek primeran pasa dute: Lagunarteko esperientzia polita izateaz gain, ingelesaren ezagutza eta erabilpen maila hobetu dutelako.

## Santa Zezilia ospatzeko musika festa izango da asteartean

OIARTZUN. Bihar, azaroak 22 izaki, Santa Zezilia eguna izango da. Hori dela eta Oiartzungo Ibargain Musika Eskolak musikarien zaintzailea den horren inguruko festa luzatuz emanaldi berezia antolatu du astearterako. Arratsaldean, 17:45 aldera, Musika Eskolako ikasle eta irakasleak eskolako atarian bildu eta kalejira alaian, Aialde kalean zehar, Done Eztebe plazara igoko dira kantari eta soinu-tresnak joaz.

Plazara iritsitakoan udaletxearen aurrean abesti ezagunez osatutako kantaldia eskainiko dute. Kantaldia irekia izango da eta hurbildutako guztiak haur eta gazteekin batera kantatzera gonbidatuta daude.

Plazako saioaren ondoren ikasle eta irakasleek eskolarantzko bidea hartu eta kantari emango diote egunari bukaera.

Festaren helburuak Musikarien eguna iragartzea, Musika Eskola kalera ateratzea, batez ere ikasle gazteenak, publikoa beraiekin batera kantan eta dantzan jartzea eta azken finean, denok ondo pasatzea izango dira.

Festa egunerako egitarau zabala antolatu dute.

## Kutsadura elektromagnetikoa hizapide izango da bi hitzalditan

OIARTZUN. Haurtzaro Ikastolako guraso talde batek kutsadura elektromagnetikoari buruzko bi hitzaldi antolatu ditu, harek gure osasunean eraginik ba ote duen galderari erantzuna emateko helburuarekin.

Lehenengo hitzaldia, bihar astelehenean, arratsaldeko 18:00etan Udaletxeko Areto Nagusian, izango da eta bertan aztertuko den gaia 'Zer daukagu kalean? Antenak, wifi, tentsio handiko kableak...' izango da.

Bigarren hitzaldia, azaroren 29an, hurrengo astelehenean, izango da, lehenengo hitzorduaren ordu eta leku berean, eta kasu honetan landuko den gaia ondorengo izango da: 'Etxean daukagun kutsadura. Zer egin daiteke? Nola sahiestu edo babestu?'.

Bietan Asier Arregi aditua izango da hizlaria.

SE VENDE
OIARTZUN CENTRO
NEGOCIO
Comestibles/Mercería
a pleno rendimiento
2 puestos de trabajo demostrables
652 705 146 / 943 492 805



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## KONTZERTUA 2010 AZKOITIAN

**AZAROAK 27, LARUNBATA**

**"Tomas Garbizu" LUME-ko**

**"SUTARGI" ABESBATZA**

**KONTZERTUA**

**Azkoitiko Parrokian,**
**17:30etan.**



# SUTARGI AZKOITIAN
# (AZAROA 2010)

KONTZERTUA - *CONCIERTO*

## Pintzelkada Koralak
## *Pinceladas Corales*

Egilea / *Autor*: **SUTARGI ABESBATZA**




**Kutxa**k sustatu eta finantzaturiko jarduera
*Actividad promocionada y financiada por* ***kutxa***

gizarte
kutxa
zugandik zugana

# SUTARGI AZKOITIAN (AZAROA 2010)



ERRENTERIA

## El Beti Ona visita mañana al Sampedrotarra en Trintxer

Nuevo derbi comarcal, que comenzará a las 16.00 horas

:: LUISMA RODRÍGUEZ

ERRENTERIA. Nueva jornada futbolística este fin de semana para los once equipos del Club Deportivo Beti Ona.

Dentro de los partidos programados destaca el enfrentamiento que mañana, sábado, a partir de las 16.00 horas, tendrá lugar en el campo de Trintxer entre el Sampedrotarra y el Beti Ona de la categoría de Regional Preferente, en un derbi comarcal marcado por la igualdad entre dos rivales que ocupan la zona media de la tabla y que marchan empatados con 14 puntos, por lo que se prevé un encuentro muy disputado.

La jornada se completará en Beraun con los siguientes partidos que se jugarán todos ellos mañana sábado.

A las 11, el equipo del Beti Ona de Infantil Participación recibirá al Ostadar. El 1ª Regional jugará a partir de las 15.30 contra el Martutene. A las 17.15 se enfrentarán en el mismo campo el equipo de 1ª Cadete que juega contra el Intxaurrondo y a las 19 cierra la jornada el Femenino Regional que recibe al C. D. Touring.



Derbi. El Beti Ona de Preferente juega en Pasaia. :: ARIZMENDI

### Visitante

Como visitante mañana sábado el Beti Ona cadete femenino juega a las 10 en Ondartza contra el Hondarribia y el infantil femenino se desplaza a Oiartzun para enfrentarse a las 10.30 al titular de la localidad. El Infantil participación B visitará a las 13 horas en Don Bosco al Pasajes.La jornada la completará el Primera juvenil que visitará a las 16 en Herrera al Sporting, mientras que el 1ª Cadete jugará a las 19 en Don Bosco contra el líder Pasajes.

El domingo el único partido será el que dispute el alevín del Beti Ona, que se enfrentará a las 12 del mediodía en Ugalde contra el Mariño.

## Organizado un nuevo curso sobre 'cuidar al cuidador' en la Casa Xenpelar

:: L. R.

ERRENTERIA. Se ha organizado un nuevo curso que estará especialmente dirigido a familiares de personas mayores con algún trastorno, pero que está abierto a todas las personas interesadas en el tema (trabajadores de residencias y centros de día, estudiantes, voluntariado...). Lleva por título 'El estrés del cuidador. Cuidarse para cuidar' y se celebrará en la Casa Xenpelar de la calle Magdalena, 7, durante los días 9, 10, 13, 16, 17, 20 de diciembre y en horario de 16.00 a 19.00 horas.

Intervendrá como ponente la psicóloga Silvia Camino y cuenta con plazas limitadas para un máximo de 20 alumnos. Es gratuito y está subvencionado por el departamento para la Política Social de la Diputación de Gipuzkoa.

El programa que se verá es la definición de estrés, sindrome burnout y orígenes del término, profesiones de riesgo, factores, consecuencias, prevención y tratamiento, relajación, habilidades sociales y entrenamiento asertivo.

LEZO

## El Coro Sutargi del Tomás Garbizu ofrecerá mañana un concierto en Azkoitia

:: L. R.

LEZO. La escuela municipal de música Tomas Garbizu de Lezo ha dado a conocer que mañana, sábado, día 27, el Coro Sutargi, dependiente de dicha escuela de música, ofrecerá un concierto en la iglesia parroquial de la localidad de Azkoitia. El acto comenzará a partir de las 17.30 de la tarde.

### Programa

Dentro del programa que ofrecerán se podrán escuchar un total de quince obras entre las que estarán 'Ave Maria Stella' de Perosi, 'Agurra' del pasaitarra Xabier Jacinto, 'Gabota' para txistu y órgano de Tomás Garbizu, 'Nerea izango zen' de Jabi Busto, 'Jeiki Jeiki' de P. Donostia, 'Baldorba' de Benito Lertxundi, 'Habanera' de Xabier Lete y 'Bigarren Kalez Kale' de Pablo Sorozabal .

En el citado concierto intervendrá como pianista solista Patxi Intxaurrandieta y como txistulari lo hará Estanis Karrera y el director del coro será como es habitual Xanti Espina.

OIARTZUN

## Amaia Caballero Adurizek Gipuzkoako 15 urteko errekor berria lortu du 50 tximeletako proban

Bestalde, datorren astean Oarsoaldea ikekoak Espainako txapelketa absolutoan lehen aldiz errelebo batetan egongo dira

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarteak gogor eta gogotsu hasi du aurtengo denboraldi berria. Jardunaldi bakarra ospatu den arren, txikiak eta 13an haundiak), hasieratik eman dute aurpegia eskualdeko igerilariek.

Txikien artean, aipatzekoak Enara Bueses Otamendik 100 bular proban eginiko 1.36.25 denborak eta horrek emandako gipuzkoa mailan 3.postua, eta proba berean Oihan Manzisidor Otaegik 1.28.63 denborarekin lortutako 2.postua.

Haundienei dagokionez, aipatzekoak Tolosan lortutako marka batzuk: Elena Rodriguez Santesteban bikain, 1.07.81 denborarekin kategorian 100 libre proban 3.postua eskuratuz, eta kategoria eta proba berean, Mikel Irazusta Ollokiegik denbora onena lortu zuen 57.23 denborarekin.

50 tximeletan B kategorian oraingoan, Amaia Caballero Adurizek marka bikaina lortu zuen, 30.27 alegia, gipuzkoako 15 urteko errekorretik oso gertu (30.22) eta horrek, junior mailako espainiako txapelketan parte hartzeko txartela ematen dio (30.90 eskatzen bait diote). Proba eta kategoria berean, Gaztelumendi Marquinezek 2.postua eskuratu zuen 29.74 denborarekin.

200 bizkar proban, A kategorian Eider Peña Zapirain bikain 2.40.97 denborarekin 2.postua lortu zuen eta B kategorian Maitane Damborena Garcia-k 2.23.12 denborarekin, markarik onena egin zuen. Mutilen artean, proba berean baina A kategorian Oier Elissalt Peña 2.33.08 denborarekin eta Aitor Sagastuy Arbide 2.36.67 denborarekin, lehenengo eta bigarren postuak eskuratu zituzten hurrenez hurren. 100 estilotan, eta A kategorian, Oier Ansa Otxoak 1.10.61 denborarekin bigarren postua eskuratu zuen.

Astebete beranduago, Getxon ospatutako denbora hartze proban, espainiako absoluto mailako txapelketetan parte hartzeko azken aukeran, bikain aritu ziren Oarsoaldea-ko neskak eta 4x50 estilo-tako proban espainiako minima lortzeaz gain (Maitane Damborena bizkar estiloan, Amaia Caballero bular estiloan, Itxaso Arrillaga tximeletan eta Elsa Romero estilo librean) Amaia Caballero-k 50 tximeleta proban ere parte hartu zuen eta 15 urtetako Gipuzkoako Errekor berria ezarri zuen 30.04 denborarekin. Orain arte, Ane Zulaika donostiarrak zeukan, Sabadell-en 2005-03-11an lortutako 30.22 denborarekin.



Amaia Caballero Aduriz garaipen garrantzitsuak lortzen ari da.

Bestalde, abenduak 2, 3, 4 eta 5ean Espainiako txapelketetan izango dira. Erreleboaz gain, Maitane Damborenak 50,100 eta 200 bizkar probatan parte hartuko du.

Asteburu honetan, Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarteak bigarren kirol zehaztasun ligako jardunaldia antolatuko du Galtzarabordako igerilekuan arratsaldeko 16:00tan.

Komarkako igeriketa taldearen informazio gehiago nahi baduzue, sartu konpromisurik gabe www.oarsoaldeaike.com web orrialdera.

### Jolas dinamikoak

Azaroko azkeneko asteburuan ere Kale Ekintzako saioa izango da LH 1. mailatik hasi eta 6. maila arteko haur oiartzuarrentzat. Oraingo honetan, Ttak-ek jolas dinamikoak prestatu ditu. Elizalde Herri Eskolako pilotalekuan izango da saioa arratsaldeko 16:30etik 18:30era .

# Arrasateko Akordeoi Lehiaketak

**Accordion Competitions of Arrasate - Concursos de Acordeón de Arrasate**

## 2010




**ARRASATE-MONDRAGON**

**4 - 7 / XII / 2010**

EDURNE

www.grupoizaga.com
documentación de prensa.prentsa dokumentazioa

EL DIARIO VASCO

Data
2010/12/18

# AKORDEOI LEHIAKETA ARRASATE (ABENDUA 2010)

LEZO

## El lunes se sortearán las 20 viviendas tasadas

:: L. R.

LEZO. El próximo lunes tendrá lugar a las 10.00 horas en Gezala, el sorteo de las 20 viviendas tasadas de Aralar kalea. La entrada será desde la pista de Lezo Herri Eskola. Las listas definitivas están expuestas en el tablón de anuncios.

Por otra parte, el miércoles, día 22, a las 19.30 horas habrá una sesión extraordinaria de Pleno en la que se verá el dictamen para la prórroga del convenio para la prestación conjunta del servicio nocturno de la Policía Local entre Oiartzun y Lezo, la propuesta para la aprobación de las ordenanzas fiscales del ejercicio 2011 y la propuesta para la aprobación de la modificación del presupuesto del ejercicio 2010.



**Medallas.** Los jóvenes acordeonistas de Lezo en Arrasate.

### Acordeón

Recientemente se ha celebrado en Arrasate el conocido certamen de acordeones, en el que han tomado parte acordeonistas alumnos de la escuela municipal de música Tomás Garbizu.

En la categoría C, Uxue Garmendia logró la medalla de plata y en la categoría de Cámara 1, Nerea Intxausti, Oier Berrotaran y Olaia Zubeldia también obtuvieron sendas medallas de plata.

Gaia : 1) ALBISTEAK

Laburpena : Sorteo de las 20 viviendas tasadas



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## EGITARAUA

GABONETAKO KONTZERTUAK 2010



### ABENDUAK 18, LARUNBATA

12:30etan, Gezala Auditorioa

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:

MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

### ABENDUAK 19, IGANDEA

11:00etan, Herrian zehar,

KALEJIRA

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
- TXISTULARI TALDEA.

### ABENDUAK 23, OSTEGUNA

"OLENTZERO" IPUINA

17:30etan, Gezala Auditorioa

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
  - Musika eta Mugimendua 1. eta 2.

(Gurasoentzat emanaldia)

---

19:00etan, Gezala Auditorioa

**KONTZERTUA**

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
  - Talde Korala eta Txinparta.

---

19:30etan, Gezala Auditorioa

**KONTZERTUA**

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
  - Orkestra.
  - Zangotz Akordeoi Taldea.
  - "Sutargi" Abesbatza.

### ABENDUAK 24, OSTIRALA

HATOR HATOR KANTATZERA EGITASMOAREN KALEJIRA.

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
  - TALDEAK.

Euskal Herria Plazatik, **12:00tan.**

12:30etan, Gurutze Santuaren Plaza.

(euriarekin Saldise plazan)




### ABENDUAK 31, OSTIRALA

URTE AMAIERAKO KALEJIRA "KOPLAK KANTARI".

- "Tomas Garbizu" L.U.M. Eskolako:
  - Sutargi abesbatza.
  - Txinparta abesbatza.
  - Talde Korala.
  - Trikitixa Taldea.

18:30tan, Herrian zehar.

## GABONETAKO EKINTZAK
## ABENDUA 2010

- **18 larunbata:** Musika Banda eta Txistularien kontzertua, 12:30etan, Gezala Auditorioan.
- **19 igandea:** Txistulari taldearen kalejira 11:00etan.
- **23 osteguna:** Musika eta Mugimendua 1. eta 2. kurtsoko ikasleen "OLENTZERO IPUINA" erakustaldi Audizioa, gurasoei zuzendua, 17:30etan, Auditorioan. (Gurasoentzat emanaldia).
- **23 osteguna:** Talde Korala eta Txinparta abesbatzaren KONTZERTUA, 19:00etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Orkestra, Zangotz Akordeoi Taldea eta Sutargi abesbatzaren KONTZERTUA, 19:30etan, Auditorioan.
- **24 ostirala:** Hator- Hator kantatzera **Kalejira,** 12:00etan, Euskal Herria Plazatik irtengo da. Errekorridoa hau izango da: Euskal Herria Plaza- Urdaburu- Aralar- Atzekoate- Ixkulin- Gurutze Santuaren Plaza. **12:30etan,** Gurutze Santuaren Plazan ekitaldia**, KANTA DEZAGUN!** (euriarekin Saldise Plazan)
- **30 osteguna:** Sutargi abesbatzak Errenteriako Kaputxinoetan Kontzertua, 20:00etan.
- **31 ostirala:** Sutargi, Txinparta, Talde Korala eta Trikitixa Taldea, 18:30etan, urte amaierako kalejira kopla kantari.

**Ager zaitez gurekin abestera!!!.**



**Dios te salve**

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diela!
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezpera.

# GABONAK ONDO PASA!

# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

# GABONETAKO KONTZERTUA 2010

## MUSIKA BANDA TXISTULARIAK

- **Eguna: Abenduak 18, larunbata.**
- **Ordua: Eguerdiko 12:30etan.**
- **Lekua: Gezala Auditorioa.**

**EGITARAUA.**

**TXISTULARIAK**

- EGUBERRIKO ALBORADA ................ L. Urteaga.
- ATZERRIKO EGUBERRIA ................ Mold. J.I. Ansorena.

**MUSIKA BANDA**

- DOVER PATROL MARCH ................ Douglas E. Wagner.
- SILENT NIGHT ................ Mold. J. Edmondson.
- O TANNEMBAUM ................ Mold. J. Brubaker.
- OLENTZARO ................ Mokoroa Beobide.
- PACHELBEL´S CAROLS ................ Andy Clark.
- JINGLE BELS ................ J. Pierront.
- HATOR- HATOR ................ Mold. T. Aragües.

**Zuzendaria:** Estanis Karrera.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

## GABONETAKO EKINTZAK ABENDUA 2009

- **19 larunbata:** Musika Banda eta Txistularien kontzertua, 12:30etan, Gezala Auditorioan.
- **20 igandea:** Txistulari taldearen kalejira 10:00etan eta Trikitixa taldearena, 11:00etan.
- **22 asteartea:** Musika eta Mugimendua eta Txinparta Txikiko ikasleen erakustaldi Audizioa, gurasoei zuzendua, 17:30etan, Auditorioan.
- **22 asteartea:** Zangotz akordeoi Taldea- Txinparta abesbatza eta Orkestra- Sutargi abesbatza KONTZERTUA, 19:30etan, Auditorioan.
- **24 osteguna:** Hator- Hator kantatzera **Kalejira,** 12:00etan, Euskal Herria Plazatik irtengo da. Errekorridoa hau izango da: Euskal Herria Plaza- Urdaburu- Aralar- Atzekoate- Ixkulin- Gurutze Santuaren Plaza. **12:30etan,** Gurutze Santuaren Plazan ekitaldia**, KANTA DEZAGUN!** (euriarekin Saldise Plazan)
- **29 asteartea:** Sutargi- Orkestra eta Txinparta abesbatzek Errenteriako Kaputxinoetan Kontzertua, 20:00etan.
- **31 osteguna:** Sutargi, Txinparta, Txinparta Txiki eta Trikitixa Taldea, 18:30etan, urte amaierako kalejira kopla kantari.

**Ager zaitez gurekin abestera!!!.**



**Dios te salve**

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diela!
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezpera.

# GABONAK ONDO PASA!

# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## GABONETAKO KONTZERTUA 2009

## MUSIKA BANDA eta TXISTULARIAK

- Eguna: Abenduak 19, larunbata.
- Ordua: Eguerdiko 12:30etan.
- Lekua: Gezala Auditorioa.

EGITARAUA.

TXISTULARIAK
- BI BILANTZIKO ....................................Mold. J.I. Ansorena.
- ATZERRIKO EGUBERRIA ......................Mold. J.I. Ansorena.

MUSIKA BANDA
- MARTXA............................................................ Uruñuela.
- SILENT NIGHT ..................................Mold. J. Edmondson.
- O TANNEMBAUM.....................................Mold. J. Brubaker.
- OLENTZARO .......................................... Mokoroa Beobide.
- PACHELBEL´S CAROLS......................................Andy Clark.
- JINGLE BELS......................................................J. Pierront.
- HATOR- HATOR.......................................Mold. T. Aragües.

**Zuzendaria:** Estanis Karrera.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

## GABONETAKO EKINTZAK
## ABENDUA 2010

- **18 larunbata:** Musika Banda eta Txistularien kontzertua, 12:30etan, Gezala Auditorioan.
- **19 igandea:** Txistulari taldearen kalejira 11:00etan.
- **23 osteguna:** Musika eta Mugimendua 1. eta 2. kurtsoko ikasleen "OLENTZERO IPUINA" erakustaldi Audizioa, gurasoei zuzendua, 17:30etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Talde Korala eta Txinparta abesbatzaren KONTZERTUA, 19:00etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Orkestra, Zangotz Akordeoi Taldea eta Sutargi abesbatzaren KONTZERTUA, 19:30etan, Auditorioan.
- **24 ostirala:** Hator- Hator kantatzera **Kalejira,** 12:00etan, Euskal Herria Plazatik irtengo da. Errekorridoa hau izango da: Euskal Herria Plaza- Urdaburu- Aralar- Atzekoate- Ixkulin- Gurutze Santuaren Plaza. **12:30etan,** Gurutze Santuaren Plazan ekitaldia, **KANTA DEZAGUN!** (euriarekin Saldise Plazan)
- **30 osteguna:** Sutargi abesbatzak Errenteriako Kaputxinoetan Kontzertua, 20:00etan.
- **31 ostirala:** Sutargi, Txinparta, Talde Korala eta Trikitixa Taldea, 18:30etan, urte amaierako kalejira kopla kantari.

**Ager zaitez gurekin abestera!!!.**



**Dios te salve**

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diela!
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezpera.

# GABONAK ONDO PASA!

# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## GABONETAKO KONTZERTUA 2010

## MUSIKA eta MUGIMENDUA
## 1. eta 2. kurtsoak

- **Eguna: Abenduak 23, osteguna.**
- **Ordua: Arratsaldeko 17:30etan.**
- **Lekua: Gezala Auditorioa.**

**EGITARAUA.**
**MUSIKA ETA MUGIMENDUA 1. eta 2. kurtsokoak**

- "OLENTZERO" IPUINA.

**Narratzailea:** Leire Agirre.
**IRAKASLEA:** Estanis Karrera.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

## GABONETAKO EKINTZAK
## ABENDUA 2010

- **18 larunbata:** Musika Banda eta Txistularien kontzertua, 12:30etan, Gezala Auditorioan.
- **19 igandea:** Txistulari taldearen kalejira 11:00etan.
- **23 osteguna:** Musika eta Mugimendua 1. eta 2. kurtsoko ikasleen "OLENTZERO IPUINA" erakustaldi Audizioa, gurasoei zuzendua, 17:30etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Talde Korala eta Txinparta abesbatzaren KONTZERTUA, 19:00etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Orkestra, Zangotz Akordeoi Taldea eta Sutargi abesbatzaren KONTZERTUA, 19:30etan, Auditorioan.
- **24 ostirala:** Hator- Hator kantatzera **Kalejira,** 12:00etan, Euskal Herria Plazatik irtengo da. Errekorridoa hau izango da: Euskal Herria Plaza- Urdaburu- Aralar- Atzekoate- Ixkulin- Gurutze Santuaren Plaza. **12:30etan,** Gurutze Santuaren Plazan ekitaldia**, KANTA DEZAGUN!** (euriarekin Saldise Plazan)
- **30 osteguna:** Sutargi abesbatzak Errenteriako Kaputxinoetan Kontzertua, 20:00etan.
- **31 ostirala:** Sutargi, Txinparta, Talde Korala eta Trikitixa Taldea, 18:30etan, urte amaierako kalejira kopla kantari.

**Ager zaitez gurekin abestera!!!.**



**Dios te salve**

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diela!
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezpera.

# GABONAK ONDO PASA!

# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## GABONETAKO KONTZERTUA 2010

## TALDE KORALA eta TXINPARTA ABESBATZA

- **Eguna**: **Abenduak 23, osteguna.**
- **Ordua**: **Arratsaldeko 19:00etan.**
- **Lekua**: **Gezala Auditorioa.**

**EGITARAUA.**

➢ **TALDE KORALA eta TXINPARTA ABESBATZA:**

- KANTUZ LAGUN ........................................ Herrikoia.
- OLENTZERO POTOLO HORI ........................ Herrikoia.
- POZKARIOZ- BIRJIÑA MAITE **(Txinparta)**... Herrikoia.
- GABON IZAR EDER.................................Javi Busto.
- HABANERA **(Txinparta)**.................................X. Lete.
- OPORRAK OPORRAK..........................Mikel Errazkin.

**Bateria eta Lira:** June Compañon.
**Pianoa:** Marta Bocos.
**Zuzendaria:** Xanti Espina.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

## GABONETAKO EKINTZAK
## ABENDUA 2010

- **18 larunbata:** Musika Banda eta Txistularien kontzertua, 12:30etan, Gezala Auditorioan.
- **19 igandea:** Txistulari taldearen kalejira 11:00etan.
- **23 osteguna:** Musika eta Mugimendua 1. eta 2. kurtsoko ikasleen "OLENTZERO IPUINA" erakustaldi Audizioa, gurasoei zuzendua, 17:30etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Talde Korala eta Txinparta abesbatzaren KONTZERTUA, 19:00etan, Auditorioan.
- **23 osteguna:** Orkestra, Zangotz Akordeoi Taldea eta Sutargi abesbatzaren KONTZERTUA, 19:30etan, Auditorioan.
- **24 ostirala:** Hator- Hator kantatzera **Kalejira,** 12:00etan, Euskal Herria Plazatik irtengo da. Errekorridoa hau izango da: Euskal Herria Plaza- Urdaburu- Aralar- Atzekoate- Ixkulin- Gurutze Santuaren Plaza. **12:30etan,** Gurutze Santuaren Plazan ekitaldia**, KANTA DEZAGUN!** (euriarekin Saldise Plazan)
- **30 osteguna:** Sutargi abesbatzak Errenteriako Kaputxinoetan Kontzertua, 20:00etan.
- **31 ostirala:** Sutargi, Txinparta, Talde Korala eta Trikitixa Taldea, 18:30etan, urte amaierako kalejira kopla kantari.

**Ager zaitez gurekin abestera!!!.**



**Dios te salve**

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diela!
Legiarekin kunpli dezagun
Urteberriaren bezpera.

# GABONAK ONDO PASA!

# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## GABONETAKO KONTZERTUA 2010

## ORKESTRA- ZANGOTZ AKORDEOI TALDEA eta SUTARGI ABESBATZA

- **Eguna**: Abenduak 23, osteguna.
- **Ordua**: Arratsaldeko 19:30etan.
- **Lekua**: Gezala Auditorioa.

**EGITARAUA.**

**ORKESTRA**

- CARESSE SUR L´OCEAN ........................ Bruno Coulais.
- THE MISSION ........................ Ennio Morricone.
  - BROTTHERS.
  - GABRIELS OBOE.
- NOTHING ELSE MATTERS ........................ Metallica.

**Zuzendaria:** Estanis Karrera.

**ZANGOTZ AKORDEOI TALDEA**

- KANON........................ J. Pachelbel.
- THE LORD OF THE DANCE ........................ R. Padraig.
- A CHRISTMAS FESTIVAL ........................ L. Anderson.

**Zuzendaria:** Joxan Anduaga.

**SUTARGI ABESBATZA**

- BENEDICAT VOBIS........................ G. F. Haendel.
- HEMEN HELDU GERADE........................ R. Parfrey.
- ADESTE FIDELES........................ D. Willcocks.
- GAUR GABON ........................ A. Rey.
- GLORIA IN EXCELSIS DEO........................ J. Estes.
- HABANERA ........................ X.Lete.
- HATOR- HATOR (denak batera) ........................ A.Amezaga.

**Pianoan:** Patxi Intxaurrandieta.
**Zuzendariak:** Xanti Espina.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

GABONAK
(ABENDUA 2010)

## 'Udalbiltza auzia'-ri buruzko hitzaldia emango dute asteartean

Epaiaren zain daude auzipetuak; horietako batek, Imanol Esnaolak, emango du hitzaldia udaletxean, 20:00etan

**Erredakzioa**

Udalbiltzaren aurkako epaiketa bukatuta, epaiaren zain daude auzipetuak. Horietako batek, Imanol Esnaolak, hitzaldia emango du astearte arratsaldean udaletxeko pleno aretoan, 20:00etatik aurrera.

Herriko Udalbiltza sareak antolatu du astearteko hitzaldia. Bertan epaiketaren nondik norakoak kontatuko ditu Esnaolak eta balorazioa ere egingo du. Herritarrak gonbidatu dituzte bertara ager daitezen.

## Muniberen kontra jokatuko du Allerruk, atsedenetik bueltan

Allerru-Algeposak ere etxean jokatuko du, 18:00etatik aurrera, Durangoko Sasikoa taldearen kontra

**Erredakzioa**

Erregional Preferente Mailako Allerruk eta Allerru-Algeposak etxean jokatuko dute bihar arratsaldean, pasa den asteburuan atseden hartu ondoren.

Futbol talde nagusiak Plazetan jokatuko du 16:00etatik aurrera. Aurkaria Donostiako Munibe taldea izango da.

Allerru-Algeposak ere etxean jokatuko du. Bekoerrota kiroldegian Durangoko Sasikoa taldea jasoko dute Javi Mirandaren mutilek. 18:00etan hasiko da partida.

# Adin guztietako lagunei zuzendutako ekitaldi ugari egingo dituzte Gabonetan

Musika, jokoak, Olentzero eta beste ekitaldiez gain, errokodromoa lehen aldiz erabiliko dute

**Erredakzioa**

Gabonak iristen ari dira eta, urtero bezala, Lezon ere ekitaldi ugari antolatu dituzte. Adin guztietako jendearentzako, gainera.

Horrela, Gabonetako ohiko ekitaldiak egingo dituzte: Gabon Gauean eta Urtezaharrean kantatzen dituzten koplak, Tomas Garbizu Musika Eskolako kideen eta taldeen kontzertuak, Olentzeroren opari banaketa...

Horrez gain, haurrentzako ekitaldiak ere egingo dituzte, urtero garai horretan egiten den bezala. Ludotekaz gain, jolasak eta filmeen emanaldiak ere egingo dituzte.

### Eskalada eta elkartasuna

Berritasun nagusi bezala, errokodromoan ekitaldiak egingo dituzte. Ikasturte honetan eraiki dute Bekoerrotan eta Gabonetan inauguratuko dute.

Presoen aldeko elkartasunak ere izango du lekua ekimen horietan. 24an zortzi orduko elkarretaratzea egingo dute Gurutze Santuaren plazan.



Punteriako jokoak egingo dituzte berriro Gabonetan. ERIK GARTZIA

### ↓ Egitaraua

**HILAK 23, OSTEGUNA**

- **16:30.** Puzgarriak Saldisen.
- **17:30.** Musika Mugimenduko ikasleen erakustaldia, Gezalan.
- **19:00.** Talde koraleko eta Txinparta abesbatzako ikasleen kontzertua, Gezalan.
- **19:30.** Gabonetako kontzertua musika eskolako akodeoi taldearekin, orkestrarekin eta Sutargirekin, Gezalan.

**HILAK 24, OSTIRALA**

- **11:00.** Presoen aldeko zortzi orduko elkarretaratzearen hasiera, Gurutze Santuaren plazan.
- **12:00.** Gabonetako kalejira: *Hator, hator kantatzera.* Euskal Herria plazatik aterata.
- **16:00.** Aiton Bordaren kalejira, trikitixa taldearekin.
- **18:00.** Katekesiaren kalejira txistulariekin, goiko elizatik.
- **18:30.** Elkarretaratzea bukatzean, kartelada San Pedrora.

**HILAK 25, LARUNBATA**

- **11:30.** *Badator, badator Olentzeroa!* txistulari taldearekin, Altzate auzo elkartetik hasita.
- **12:00.** Oparien banaketa Gurutze Santuaren plazan.

**HILAK 27, ASTELEHENA**

- **16:30.** Txiki Txokoa (0-3 urte) eta tailerrak Ludotekan.

**HILAK 28, ASTEARTEA**

- **16:00.** Bekoerrotako errokodromoaren inaugurazioa. Eskalada saioa gazteentzako.
- **16:30.** Jokoak Saldisen.

**HILAK 29, ASTEAZKENA**

- **16:00.** Zinema emanaldia Gezalan: *Barriola, San Adriango azeria.* Jarraian, tailerrak.

**HILAK 30, OSTEGUNA**

- **16:00.** Zinema emanaldia Gezalan: *Ice Age III.* Jarraian, tailerrak eta txokolate-jatea Herri Eskolan.

**HILAK 31, OSTIRALA**

- **15:00.** Presoen aldeko kopla zaharrak baserriz baserri.
- **18:30.** Urte bukaerako kalejira Sutargirekin, Txinpartarekin, talde koraleko ikasleekin eta trikitixa taldearekin.

**URTARRILAK 3**

- **16:00.** Eskalada saioa gazteentzat.
- **16:30.** Oreka tailerra Saldisen.

**URTARRILAK 4**

- **16:00.** Zine emanaldia Gezalan: *Bazen behin baso bat.* Jarraian tailerrak ludotekan.

**URTARRILAK 5**

- **12:00.** Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, Bekoerrotan.
- **19:00.** Errege kabalgata Lopenetik.











Tomas Garbizu musika eskolako banda. HITZA

# Musika eskolakoek ekitaldi ugari egingo dituzte Gabonetan

Etzi kontzertua egingo dute eta urtearen bukaerara arte izango da musika eskolakoekin gozatzeko aukera

**E. Gartzia**

Gabonak direla eta, herriko hainbat elkarte eta talde ari dira ekitaldiak prestatzen. Tomas Garbizu Lezoko Udaleko Musika Eskola ez da gutxiago izan. Horrela, eskolako taldeek soilik edo beste elkarte bat lagunduz, hainbat ekitaldi egingo dituzte Gabonetan. Egitaraua etzi hasiko da eta urteko azkeneko egunera arte luzatuko da.

Larunbat eguerdian musika eskolako musika bandak kontzertua emango du Gezala Auditoriumean. Emanaldia 12:30ean hasiko da. Ez da asteburu honetan egingo duten ekitaldi bakarra izango. Izan ere, igandean, goizeko hamarretatik aurrera, kalejira egingo du musika eskolako txistulari taldeak. Horrela, San Tomaseko azoka hasi baino ordubete lehenago Lezoko kaleak alaituko dituzte.

**Hiru emanaldi, hilaren 23an**

Gaur zortzi, hiru emanaldi emango dituzte Gezala Auditoriumean (ikusi ondoko koadroan).

Hilaren 24a eta 31, berriz, egun seinalatuak dira herrian. Musika eskolako kideek ez dute hutsik egingo. Gabon bezperan *Hator, hator kantatzera* ekimenean Herri Eskolako zein Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleekin ariko dira. Euskal Herria plazatik abiatuko dira eta ordu erdi beranduago Gurutze Santuaren plazan izango dira. Euria eginez gero, Saldise plazan izango da. Urtea bukatzeko, berriz, koplak abestuko dituzte.

**Egitaraua**

**ETZI, LARUNBATA**

- **12:30ean.** Musika bandaren kontzertua, Gezalan.

**HILAK 19, IGANDEA**

- **10:00etan.** Kalejira herrian zehar, txistulari taldearekin.

**HILAK 23, OSTEGUNA**

- **17:30ean.** *Olentzero* ipuina, Musika eta Mugimenduko ikasleekin, Gezala Auditoriumean. Ondoren, Txinparta eta talde korala ariko dira, orkestraren, akordeoi taldearen eta Sutargiren aurretik.

**HILAK 24, OSTIRALA**

- **12:00etan.** *Hator, hator kantatzera* Euskal Herria plazatik (euria eginez gero, Saldisen).

**HILAK 31, OSTIRALA**

- **18:30ean.** *Koplak kantari*, Sutargi eta Txinparta abesbatzekin eta trikiti eta abesbatza ikasleekin.

# Txerrimuño etxe okupatuaren 27. urteurrena ospatuko dute asteburuan

Bertsolariak, kontzertuak, afariak... hainbat ekitaldi egingo dituzte bihar eta etzi Txerrimuñon

**Erik Gartzia**

Urte bukaera iritsita, Txerrimuño etxe okupatuak urteurrena ospatuko du beste behin. Aurtengoa 27.a izango da. Ohi bezala, ederki ospatuko dute urteurrena, ekitaldi ugari antolatu baitituzte etxe okupatukoek.

Lehenik eta behin, bihar arratsaldean, euskal presoen aldeko karteladan hartuko dute parte. Ondoren, 21:30ean, afari autogestionatua egingo dute Txerrimuñon.

**Tailerrak, bertsoak eta musika**

Larunbatean, 11:00etan, serigrafia tailerra egingo dute. Joaldunak ere ariko dira goizean. 14:00etan, berriz, bertso-bazkaria egingo dute, Jokin Labayen eta Alaia Martin bertsolariekin.

Gauean, berriz, 21:00etan hasiko den afariaren ondoren, kontzertua emango dute lau taldek: Donnadiesek, Murder Pink-ek, Lorebeltzek eta Mitosiak.



Murder Pink talde zornotzarrak ere Txerrimuñon joko du etzi. HITZA

**Txerrimuñoren 27. urteurrena**

**BIHAR**

- **20:00etan.** Presoen aldeko kartelada Gurutze Santuaren plazan.
- **21:30ean.** Afari autogestionatua Txerrimuñon. Ondoren, Petti kantautoreak kontzertua emango du.

**ETZI**

- **11:00etan.** Joaldunak eta serigrafia tailerra (kamiseta eraman behar da).
- **14:00etan.** Bertso bazkaria egingo dute. Parte hartuko duten bertsolariak: Alaia Martin eta Jokin Labayen.
- **21:00etan.** Afaria egingo dute Txerrimuñon.
- **22:30ean.** Lau talderen kontzertua: Donnadies, Murder Pink, Lorebeltz eta Mitosia.

# Lezoaundiari buruzko liburuxka aurkeztuko dute gaur

**E. Gartzia**

Markesane parkeko lanak bukatzeke dauden arren, Aranzadi Zientzia Elkarteak parkean egin behar zituen lanak eginak ditu. Elkarteak liburuxka batean bildu ditu egin dituen ikerketak eta azterketak.

Hala, gaur arratsaldean aurkeztuko dute liburuxka hori udaletxeko pleno aretoan. Horretarako hitzaldia emango dute, *Lezoaundia. Gure herriaren sorrera ikertzen* izenburupean Javi Buces Sevillan jaiotako arkeologoak eta David Zapirain historialari pasaitarrak. Lehenengoa Markesane parkeko indusketen arduraduna izan da. Horrela, liburuxka horretan Lezoren jatorri geologikoa eta Markesane parkea kokatuta dagoen muinoaren azterketa historikoa azaltzen dute. Lezo Andia familiaren historiari errepaso txikia egiten diote.

Bucesen eta Zapirainen hitzaldia 20:00etan hasiko da.

egartzia@hitza.info



# GABONAK (ABENDUA 2010)

## Donibane



## KONPOTA ETA TXISTORRA NAGUSI

Sanjuandarrek herenegun ospatu zuten San Tomas Eguna. Azoka, konpota lehiaketa, musika, produktuen zozketa... denetarik izan zuten. Eguraldia lagun, ederki pasa zuten. OLATZ MITXELENA

## Oiartzun



## GOIZ POLITA

Goiz polita pasatu zuten oiartzuarrek herenegun Txerri Egunean. EIHARTZE ARAMENDIA

## Antxo



## MUSIKA GIROAN

30 postu baino gehiagoz eta Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleen kantaldiaz gozatu zuten antxotarrek. U.E.

## Lezo



## GIRO APARTA SAN TOMAS OSPATZEKO

Tomas Garbizu Musika Eskolako txistularien kalejirarekin hasi ziren eguna ospatzen lezoarrak. Herri Eskolako eta Lizeoko ikasleen txorimalo erakusketaz ere gozatu zuten, besteak beste. E.A.















GABONAK
(ABENDUA 2010)



ERRENTERIA

## Hoy en Mikelazulo concierto de los hermanos Gorka y Eider Zabaleta

:: L.R.

ERRENTERIA. Mikelazulo Kultur Elkartea de la calle Abajo acogerá hoy, jueves, a partir de las 19.30 horas la celebración de un concierto que estará protagonizado por los hermanos Gorka y Eider Zabaleta.

Gorka interpretará varios temas compuestos por el mismo. Es un compositor muy productivo, ya que cuenta con numerosos temas de su propia cosecha. Es autor no sólo de los textos, sino también de la música.

Gorka Zabaleta cantó durante varios años en la Coral Andra Mari de Errenteria. Desde que comenzó su trayectoria como cantante solista hay que destacar sus actuaciones en el Campeonato de Canto de Gipuzkoa (en Donostia obtuvo el premio a la personalidad).

El pasado año ofreció un recital en Herri Irratia. En Oiartzun tuvo una pequeña participación en el CD 'Itoti bat gutxiyo' y en Urepel actuó en el Xalbador Eguna.

Su hermana Eider Zabaleta colaborará hoy con él en varias canciones.

## EB-Berdeak pide una ordenanza sobre locales juveniles

:: L.R.

ERRENTERIA. El grupo Ezker Batua-Berdeak considera oportuno y necesario elaborar una ordenanza municipal sobre la actividad de los locales de jóvenes, que «tiene que ser el resultado final de un proceso de participación ciudadana donde tomen parte los propios jóvenes, las AA. VV. y representantes de los grupos municipales. Asimismo este proceso estaría abierto a la ciudadanía de Errenteria».

EB dice que «prácticamente en todos los barrios del pueblo existen locales que son utilizados por jóvenes y que cubren una importante necesidad que es su ocio y el disponer de un lugar para su tiempo libre. Pero en algunos casos las condiciones y algunas de las utilidades que se dan a esos locales también son una fuente de preocupaciones, cuando no de evidentes incomodidades de todo tipo para los vecinos. En dicho proceso se elaboraría una propuesta sobre las condiciones a cumplir por los locales, así como la regulación de horarios para un buen uso de éstos».

LEZO

# La escuela municipal de música Tomás Garbizu cantará las coplas de año viejo

Los coros Sutargi y Txinparta saldrán mañana a partir de las 18.30 horas por las calles del casco

:: LUISMA RODRÍGUEZ

LEZO. Bajo la organización de la escuela municipal de música Tomás Garbizu de Lezo mañana, viernes, coincidiendo con el último día de 2010, volverán a entonarse las tradicionales coplas de año viejo.

El acto arrancará a las 18.30 y tomarán parte Sutargi, Txinparta, alumnos de canto coral del Tomás Grbizu y el grupo de trikitixa del mismo, comitiva a la que podrán sumarse todos los lezoarras que quieran despedir el año cantando las coplas.

Este acto forma parte de la programación navideña que hoy, jueves, contempla a las 16.00 horas una proyección de cine en Gezala de la película infantil 'Ice Age II'. Seguidamente habrá globoflexia, juegos malabares y chocolatada en el patio de la Herri Eskola.

**Rocódromo**

El lunes, día 3 de enero, a las 16.00 horas, en el nuevo rocódromo de Bekoerrota, inaugurado el pasado día 28, habrá una sesión de escalada para jóvenes con monitores y a las 16.30, taller de equilibrio, con zancos y traineras en la plaza Saldise.

El martes, día 4 de enero, a las 16.00 horas, cine en Gezala con la película 'Bazen behin baso bat' y a continuación talleres de juegos y juegos de mesa en la ludoteca.



Coplas. Mañana se despedirá el año 2010. :: ARIZMENDI

OIARTZUN

# Uemako 40 udalek Euskadiko eta Gipuzkoako Kutxeekin hitzarmena sinatu dute, euskararen normalkuntzan

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Hitzarmenaren bidez, bi finantza erakundeek konpromisoa hartu dute UEMAko udalerrietan eskaintzen dituzten komunikazio guztiak euskaraz egiteko.

Kutxa biek hartutako konpromiso nagusiak honako hauek dira: langile finko zein aldi baterakoak euskaldunak izatea eta behar bezala prestatuta egotea komunikazioak euskaraz ondo eskaintzeko; bezeroei lehen hitza euskaraz egitea; produktuak kontratatzen direnean eskaintza euskaraz egitea; txartelak euskaraz sortzea kontrakoa esan ezean; euskara erabiltzeko sustapena era desberdinez egitea; publizitate, kartel eta esku orriak euskaraz egotea eta lehentasuna izatea; libreta eta kontuetako idazpenak euskaraz egotea; etab.

Bost urtetako iraupena duen hitzarmen honen jarraipena egiteko, urtero helburu zehatzak ezarriko dira eta bilakaera nola doan ikusteko, hizkuntza neurketa zehatza egingo da udal bakoitzean.

Bestalde, gaur egun EAEko 230tik gora bake epaitegitan ezin dira jaioberriak euskaraz erregistratu, eta UEMAk dagokien erakundeei neurriak hartzeko eskatu die, ahalik eta lasterren aspaldítik datorren urraketa sistematikoa buka dadin. UEMAk ez ezik, beste 17 udalek ere (tartean Oiartzungoak) onartu dute mozioa, eta hurrengo asteetan beste askok onartzea espero dute.

Nabarmentzekoa da Nafarroako UEMAko herrietan aurreratuago daudela kontu horiek: Iruñean ez ezik eremu euskalduneko bake epaitegietan badago haurrak euskaraz erregistratzerik.

# Las alegaciones al PTP forman un mosaico en el frontón Madalensoro de Oiartzun

:: EGARRIZ

OIARTZUN. Con una parte de las 7.500 alegaciones suscritas por vecinos y 44 entidades del Valle, incluyendo la totalidad de los partidos políticos representados en el Ayuntamiento, se compuso ayer por la mañana, sobre la cancha del frontón Madalensoro de Oiartzun una figura alegórica.

Las hojas colocadas sobre el suelo quieren representar la participación de muchas personas para con su alegación derribar un gran viaducto de los que se plantean para la prolongación del Segundo Cinturón sobre el valle de Oiartzun, porque el viaducto que se proyecta, quiebra el paisaje del fondo, Aiako Harria.

Esta propuesta, juntamente con la plataforma logística del corredor Lezo-Gaintxurizketa, ambas incluidas en el Plan Territorial Parcial de Donostialdea, ha supuesto una importante movilización social en el municipio oiartzuarra, en el que se enmarca la iniciativa que se llevó ayer a cabo.




El mosaico del frontón Madalensoro. :: EGARRIZ

EN BREVE

## Cesta de Navidad del polideportivo

La cesta de Navidad del polideportivo Elorsoro ha sido agraciada con el número 250. Por lo que se invita al propietario del boleto a que pase a retirar la cesta a la mayor brevedad, siendo el plazo límite de recogida el día 25 de enero.

## Oiartzungo batzokiko Gabonetako loteria

Oiartzungo Batzokiko Gabonetako loteria, 44.940 zenbakian jokatutakoa erori denez (4 euro txartel bakoitzeko) dirua eskuratu nahi dutenek, 943 493060 zenbakira deitu ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 22:00etara, batzokira ordu horietan gerturatu edo eajpnv.oiartzun@gmail.com helbidera mezua helaraiz, mesedez.

GABONAK
(ABENDUA 2010)

# Urtarrileko aldaparen atarian, gomendioak eman ditu Oarsoaldeak

Dekalogoa aurkeztu du garapen agentziak, urte hasierako zailtasun ekonomikoak gainditzen laguntzeko

Erik Gartzia

Bihar hamarkada berria hasiko da. Hamar urtean behin gertatzen den zerbait izanagatik, urtero halabeharrez pasatu behar den beste gurutzebidea hasiko da bihar (eta ez dira kanpaikaden ondorengo saioak izango): urtarrileko aldapa.

Gabonetako kontsumoaren ajearen eta prezioen igoeren arteko nahasketa da urtarrileko aldapa. Mendatea hasi baino lehen, Oarsoaldea Garapen Agentziak dekalogoa aurkeztu du, aldapa leunagoa izateko asmoz neurriak proposatuz.

Urtarrilerako eman dituzte gomendioak, baina urte osoan jarraitzeko modukoak dira aholku horiek.

Horrela, gastuen, merkealdiaren, beharrezkoak ez diren hainbat zerbitzuren, garraio publikoaren eta kontzientziaren gaineko hainbat aholku eman ditu Oarsoaldeak. Gomendio horiek guztiak urte berriko aldapa ordeka izaten laguntzeko balio izatea espero du garapen agentziak.

egartzia@hitza.info





Ibilgailua eta erabiltzen ez diren txartelak baztertzeko aholkatu dute. O.B.H.

## Urtarrileko aldapa arintzeko dekalogoa

**GOMENDIOAK**

- **Ezabatu beharrezkoak ez diren gastuak.** Erosteko ohitura jakin batzuk berreskuratu behar dira, prezioak konparatzea eta beharrezkoak ez diren gastuak ezabatzea.
- **Zehaztu gehienez zenbat gastatuko duzun.**
- **Kontuz merkealdian.** Urtarrileko aldaparekin batera merkealdia dator; hala ere, ez diogu kontsumoaren amuari heldu behar.
- **Egin zerrenda bat.** Merkealdian behar ez diren gauzak ez erosteko, zerrenda bat jarraitzea hobe da.
- **Gorde partida bat urteroko garestitzeetarako.** Urtarrilean oinarrizko zerbitzu eta produktu askoren prezioak igo egiten dira (gasa, elektrizitatea, garraio publikoa...); zati bat gordetzea komeni da igoerei aurre egiteko.
- **Uko egin hainbat zerbitzuri.** Erabiltzen ez ditugun kreditu txartelei baita ia ikusten ez ditugun telebista kateak ordaintzeari ere, besteak beste.
- **Kontsumitu arduraz.**
- **Erabili gehiago garraio publikoa.** Erregaian dirua aurreztea ahalbidetzen du.
- **Kontuz atzeratutako ordainketekin.** Erosketak kreditu txartelekin ordainduz gero, batzuetan ordainketa atzeratu egiten da, baina atzerapen horrekin kontu handiz ibili behar da, urtarrileko aldapa beste hilabete batera aldatzea baino ez baita lortuko.
- **Kontzientziatu zaitez.** Norbaitekin bizi bazara, zabaldu gomendioak euren artean, etxeko ekonomian eragiteko.

# Koplak abestuz esango diote agur urteari Lezon

15:00etan presoen aldeko koplak abestuko dituzte baserrietan; musika eskolakoak 18:30ean hasiko dira

E. Gartzia Lezo

Ohi bezala, kopla doinu artean bukatuko dute urtea Lezon. Bai herrigunean baita landa eremuan ere. Izan ere, urtero bezala, bi talde ariko dira koplak kantatzen.

Lehenengo hitzordua baserriz baserri ariko direnek jarri dute. Presoen aldeko kopla zaharrak abestuko dituzte, Tiñelutik ateratа. 15:00etan aterako dira elkartetik eta ordu laurden beranduago bigarren hitzordua jarri dute Altamirako bizilagunekin, Altzate auzo elkartean. Bertatik baserrietara abiatuko dira, herrian ez daudenak gogoratzeko eta baserritarrei kopla zaharren alaitasuna eramateko.

Bazkaldu ondoren baserrietan abestuko badute ere, menditik kalera jaitsiko dira koplak askaltzeko orduan. Horrela, Tomas Garbizu Musika Eskolako Sutargi eta Txinparta abesbatzak eta talde koraleko ikasleak herriko kaleetan ariko dira, musika eskolako trikitixa taldearekin batera. 18:30ean hasiko dira kopla zaharrak abesten.

**Haurrentzako eta gazteentzako ekitaldiak**

Bestalde, astelehenean, Gabonetako egitarauak jarraituko du. Haurrentzako eta gazteentzako ekitaldiak egingo dituzte. Horrela, 16:00etan, pasa den asteartean inauguratu zuten rokodromoa erabiltzeko aukera izango dute gazteek. Lehenengo egunean eskalada murruetan gora aritu zirenek bigarren aukera dute.

Gazteago direnek Saldise plazan dute hitzordua, 16:30ean. Bertan oreka ardatz duten jokoak egingo dituzte.

lezo@hitza.info

# Zeramika erakusketa, Kultura Aretoan

Gerardo Pescador artista palentziarrak aurten egin dituen obrak ikusteko aukera egongo da

E. Gartzia Lezo

Bihartik aurrera, zeramikaz egindako artelanez gozatzeko aukera izango dute mota horretako artea maite dutenek. Izan ere, Gerardo Pescador artista palentziarrak (garai batean Lezon bizi izan zen) aurten egin dituen obrak ikusteko aukera izango dute lezoarrek datorren urtarrilaren 21era arte.

Donibane kaleko Kultura Aretoan jarriko dute erakusketa. Goizetan 11:00etatik 13:30era ikus daiteke erakusketa eta arratsaldetan, 17:00etatik 19:00etara.

Goi mailako zeramista da Pescador eta hainbat sari irabazi ditu horregatik. Lehenengoa 1984an jaso zuen, bere jaioterrian, eta oraingoz azkena, berriz, Cuencan, orain dela bi urte.

**ERAKUSKETA**

- **Zer.** Gerardo Pescadorren zeramikazko obrak.
- **Non.** Donibane kaleko Kultura Aretoan.
- **Noiz.** Bihar hasi eta urtarrilaren 21era arte.
- **Ordutegia.** Goizez: 11:00etatik 13:30era; arratsaldez: 17:00etatik 19:00etara.



GABONAK (ABENDUA 2010)



Karlos Saldise gogoratuko dute igande honetan, urtero bezala. HITZA

# Lore eskaintza eta ekitaldia, Saldise gogoratzeko

Pasai Donibanen eta Lezon Saldise omentzeko ekitaldiak egingo dituzte, hilketa bete eta 31 urtera

E. Gartzia

Bere izena daraman plazak Karlos Saldise (Donibane, 1946-Lezo 1980) urte osoan zehar gogoratzen badu ere, urtero bezala, hil zuten egunaren baitan, ekitaldiak prestatu dituzte hura gogoratzeko. Igande honetan, hil zutenetik 31 urte betetzen direnean, Donibanen eta Lezon egingo dituzte ekitaldiak.

Hasteko, Donibanen 11:00etan lore eskaintza egingo dute Bonantza ondoan, Saldise jaio zen etxearen parean. Ondoren, mendi martxa egingo dute Jaizkibeldik zehar, Lezo aldera. 13:30ean, berriz, bere izena daraman plazan ekitaldia egingo dute.

1980ko urtarrilaren 16an hil zuen Batallon Vasco Españolek (BVEk) Karlos Saldise Lezoko Aralar kalean zuen etxearen atarian. Hilabete batzuk lehenago heriotza mehatxuak jaso zituen Amnistiaren Aldeko Batzordeetan (AAB) buru-belarri sartuta zegoen sanjuandarrak. Familiak Errenteria-Oreretan zuen dendatik itzultzen ari zen hil zutenean.

**Euskararen aldeko langilea**

Karlos Saldisek gaztetatik hartu zuen euskararen eta euskal kulturaren aldeko konpromisoa. Frankismoaren garai ilunetan, Donibaneko Errekatxu tabernara hainbat abeslari euskaldun eraman zituzten Saldisetarrek, hala nola, Xabier Lete, Lurdes Iriondo edo Mikel Laboa.

Kontzientzia kulturalarekin batera politikoa ere piztu zitzaion Karlos Saldiseri. Hala, herri mugimenduan ibiltzen hasi zen eta Errenteria-Oreretako asanbladatan ez zen faltatzen. AABn engaiatu zen eta Ipar Euskal Herrira joaten zen askotan, iheslariak laguntzera. Espainiako kartzeletara ere joaten zen, euskal presoei sostengua ematera.

lezo@hitza.info

# Abenduko ekitaldien balantze positiboa egin du Lezoko Udalak

Urtez urte, Gabonetako ekimenetan herritarren parte-hartzea handitzen ari dela nabarmendu dute

Erik Gartzia

Gabonetako jaiegunen ondoren, ohi bezala, balantzea egiteko garaia iritsi da. Lezoko Udalak ere egin du hausnarketa abenduan zein urtarrilaren hasieran egindako ekitaldien gainean. Balorazioa positiboa izan da, batez ere era askotako jarduera horietan parte-hartzea handia izan delako.

Iñigo Esnaola Euskara, Kultura eta Kirol zinegotziak San Tomas feria hartzen ari den indarra nabarmendu du. «Geroz eta jende gehiagok hartzen du parte, geroz eta postu gehiago jartzen dituzte... Lezoarron elkargune bilakatu da San Tomas Eguna, batez ere eguna antolatzeko egiten den elkarlan handiaren ondorioz. Egun horretan lan egin zutenak, eta lezoarrak oro har, zoriondu nahi ditut», esan du zinegotziak. Xanti Val Kultura teknikariak azokak izandako hazkundearen adibide bat eman du. «Orain dela bi urte 50 kilo txistorra erosi genituen», zehaztu du Valek, «eta aurten, berriz, 100 erosi ditugu eta guztia bukatu da. Ez dakit Saldise plaza aterpetua dagoelako-edo izango den, baina arrakasta handia lortu du egun horrek».

Gainerako ekitaldiek izan duten erantzunarekin ere gustura daude Lezoko Udaleko ordezkariak. Eguberri Bezperako *Hator, hator* ekitaldian jende askok parte hartu zuela nabarmendu dute, Errege kabalgatan ere, Olentzero etorreran bezala. «Gurasoek musika eskolan uzten dituzte opariak. Aurten ondo funtzionatu du», argitu du Esnaolak.

Tomas Garbizu Musika Eskolako ikasleek eman dituzten kontzertuetan ere ikusle andana bildu da. «Haurrek hartzen dute parte gehienbat eta haurrak dauden tokietara beti hurbiltzen dira gurasoak», azaldu du zinegotziak. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldian ere horrelako zerbait gertatu zen.



Gabonetako ekitaldiek arrakasta izan dute. ERIK GARTZIA

**Adin guztientzako ekitaldiak**

Gabonetako haurrei zuzendutako ohiko jolasez gain, aurten ere gazteentzako ekitaldiak antolatu dituzte. Horrela, rokodromoa inauguratu dute Bekoerrota kiroldegiko kantxan. Horrez gain, kirol azpiegitura berriak ere jarri ditu Udalak, hala nola, saskibaloiko bi saski berri (Saldise plazan bat eta Tiñelu atzealdean bestea). Ping pongeko mahaia ere jarri dute, skatepark-aren ondoan. «Gazte Plana egin genuenean eskaera hori egin zuten gazteek. Legegintzaldi hasieran finkatu genuen ildoari jarraitzen diogu; hau da, gazteentzako espazioak berreskuratzearena», azaldu du Esnaolak.

Bestalde, Markesane parkearen gaineko hitzaldian eta *Lezo airetik* liburuaren aurkezpenean bildutako jendea aipagarria izan da Udaleko ordezkarientzat. Bigarren ekitaldia batez ere, Kultura aretoa jendez lepo bete baitzen. Liburu hori, gainera, Lezo Institutuan ere aurkeztu zuten.

Bestalde, *Lezo airetik* liburuaren irudiak ditu aurtengo Udalaren egutegiak. Iñigo Esnaolak azaldu duenez, 2.500 ale banatu zituzten etxez etxe, «baina lezoar asko hurbildu zaizkigu egutegi eske eta 3.000 aleko tirada agortu da».

egartzia@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EGUTEGIRIK GABE GELDITU NAHI AL DUZU?




Egutegia 2011
HITZAren erredakziotik pasatu eta eskuratu zurea!
Santa Klara 22, behea . Errenteria-Orereta

# KANTA DEZAGUN

KANTATU ZUTEN




KANTA DEZATEN

# 24EAN KALEJIRA

**12:00etan EUSKAL HERRIA PLAZATIK**

**12:30etan EMANALDIA PLAZAN**

## HATOR HATOR KANTATZERA

Euria egiten badu Saldise plazan

GABONAK HATOR HATOR LEZON (ABENDUA 2010)





Tomas Garbizu musika eskolako banda. HITZA

# Musika eskolakoek ekitaldi ugari egingo dituzte Gabonetan

Etzi kontzertua egingo dute eta urtearen bukaerara arte izango da musika eskolakoekin gozatzeko aukera

E. Gartzia

Gabonak direla eta, herriko hainbat elkarte eta talde ari dira ekitaldiak prestatzen. Tomas Garbizu Lezoko Udaleko Musika Eskola ez da gutxiago izan. Horrela, eskolako taldeek soilik edo beste elkarte bat lagunduz, hainbat ekitaldi egingo dituzte Gabonetan. Egitaraua etzi hasiko da eta urteko azkeneko egunera arte luzatuko da.

Larunbat eguerdian musika eskolako musika bandak kontzertua emango du Gezala Auditoriumean. Emanaldia 12:30ean hasiko da. Ez da asteburu honetan egingo duten ekitaldi bakarra izango. Izan ere, igandean, goizeko hamarretatik aurrera, kalejira egingo du musika eskolako txistulari taldeak. Horrela, San Tomaseko azoka hasi baino ordubete lehenago Lezoko kaleak alaituko dituzte.

**Hiru emanaldi, hilaren 23an**
Gaur zortzi, hiru emanaldi emango dituzte Gezala Auditoriumean (ikusi ondoko koadroan).

Hilaren 24a eta 31, berriz, egun seinalatuak dira herrian. Musika eskolako kideek ez dute hutsik egingo. Gabon bezperan *Hator, hator kantatzera* ekimenean Herri Eskolako zein Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleekin ariko dira. Euskal Herria plazatik abiatuko dira eta ordu erdi beranduago Gurutze Santuaren plazan izango dira. Euria eginez gero, Saldise plazan izango da. Urtea bukatzeko, berriz, koplak abestuko dituzte.

## Egitaraua

**ETZI, LARUNBATA**

- **12:30ean.** Musika bandaren kontzertua, Gezalan.

**HILAK 19, IGANDEA**

- **10:00etan.** Kalejira herrian zehar, txistulari taldearekin.

**HILAK 23, OSTEGUNA**

- **17:30ean.** *Olentzero* ipuina, Musika eta Mugimenduko ikasleekin, Gezala Auditoriumean. Ondoren, Txinparta eta talde korala ariko dira, orkestraren, akordeoi taldearen eta Sutargiren aurretik.

**HILAK 24, OSTIRALA**

- **12:00etan.** *Hator, hator kantatzera* Euskal Herria plazatik (euria eginez gero, Saldisen).

**HILAK 31, OSTIRALA**

- **18:30ean.** *Koplak kantari*, Sutargi eta Txinparta abesbatzekin eta trikiti eta abesbatza ikasleekin.

# Txerrimuño etxe okupatuaren 27. urteurrena ospatuko dute asteburuan

Bertsolariak, kontzertuak, afariak... hainbat ekitaldi egingo dituzte bihar eta etzi Txerrimuñon

Erik Gartzia

Urte bukaera iritsita, Txerrimuño etxe okupatuak urteurrena ospatuko du beste behin. Aurtengoa 27.a izango da. Ohi bezala, ederki ospatuko dute urteurrena, ekitaldi ugari antolatu baitituzte etxe okupatukoek.

Lehenik eta behin, bihar arratsaldean, euskal presoen aldeko karteladan hartuko dute parte. Ondoren, 21:30ean, afari autogestionatua egingo dute Txerrimuñon.

**Tailerrak, bertsoak eta musika**
Larunbatean, 11:00etan, serigrafia tailerra egingo dute. Joaldunak ere ariko dira goizean. 14:00etan, berriz, bertso-bazkaria egingo dute, Jokin Labayen eta Alaia Martin bertsolariekin.

Gauean, berriz, 21:00etan hasiko den afariaren ondoren, kontzertua emango dute lau taldek: Donnadiesek, Murder Pink-ek, Lorebeltzek eta Mitosiak.



Murder Pink talde zornotzarrak ere Txerrimuñon joko du etzi. HITZA

## Txerrimuñoren 27. urteurrena

**BIHAR**

Donostiako Antzoki Zaharra
apirilak 16, larunbata / 20:00
Josune Olaizola
OARSO BIDASOKO HITZAren erredakzioan sarrerak salgai ditugu

10 yogurtera
Behemendiren eskutik
Yogurra etxean egiteko!
Iñigo Larrazabal
Xabier Landa
Juan Ignazio Ansa
Idoia Pikabea
Igor Lizeaga
Kristina Zuloaga
Nora Urdanpilleta
Jesus Pikabea
Karmele Urtxulutegi
Oier Izagirre

barnideunen TXOKOA hitza

LESOINU
(APIRILA 2011)

**Irudia** ○ Lezo




## ANGULO, TXAPELDUN

Txakurkrosa Oarsoaldean taldeko Iban Angulo lezoarrak bikejoringeko Nafarroako Opena irabazi du. Pasa den asteburuan Candanchun (Huesca, Espainia) jokatu behar zuten azken lehia, baina bertan behera gelditu zen. Ondorioz, Angulok lehenengo postua mantendu eta Opena irabazi du. HITZA

## Herri abestiak kantatuko dituzte gaur, Lesoinuren harira

Maiatzaren 5ean eta 19an Marta Bocosek musikoterapia hitzaldiak emango ditu, ekimena ixteko

**Erredakzioa** Lezo

Azkeneko txanpan sartu da Lesoinu, Lezoko musika aste pedagogikoa. Gaur arratsaldean, herri doinuek hartuko dituzte Lezoko kaleak.

Horrela, Tomas Garbizu Musika Eskolako bandaren laguntzarekin, herritarrek doinu herrikoiak abestuko dituzte. *A capella* ere abestuko dute. Ekitaldia Gurutze Santuaren plazan izango da, 19:30etik aurrera. Euria eginez gero, baina, Saldise plazan abestuko dute.

Aurten bigarren aldiz egingo dute musika bandak lagundutako kantu jira. Iazkoak arrakasta izan zuelako erabaki dute berriz ere antolatzea.

**Musikoterapia, maiatzean**

Aste pedagogikoa bera gaur arratsaldean bukatuko bada ere, Lesoinuren barruan musikoterapia saioak egingo dituzte maiatzaren 5ean eta 19an.

Marta Bocos herriko musika eskolako irakaslea eta psikologoa izango da eskola horiek emateko arduraduna.




## Udako aldi baterako egonaldiak eskatzeko epea ireki dute

Egoitza egonaldia eskatu nahi dutenek gizarte zerbitzuetako teknikariarekin hitz egin behar dute

**Erredakzioa** Lezo

Gipuzkoako Foru Aldundiak uda honetako aldi baterako egonaldia eskatzeko epea zabaldu du. Egoitza egonaldiak eskatzeko Lezoko Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariarekin hartu behar dute hitzordua, 943 52 10 94 telefono zenbakira deituta.

Eskaerak egiteko epeak jarri dituzte. Uztailean aldi bateko egonaldia egin nahi dutenek maiatzaren 16ra (astelehena) bitartean dute eskaera egiteko epea. Abuztukoek, berriz, maiatzaren 27ra arte (ostirala). Azkenik, irailean egin nahi dutenek ekainaren 10era arte eska dezakete.

## Munibe laugarren sailkatuaren kontra jokatuko du Allerruk

Allerru Bk Kostkas-Miren Bihotza Bren kontra jokatuko du bihar Plazetan, 18:00etatik aurrera

**Erredakzioa** Lezo

Erregional Preferenteko Allerruk Munibe laugarren sailkatuaren zelaian (Berion, Donostia) jokatuko du bihar, 15:30etik aurrera. Allerru Bk Plazetan jokatuko du, 18:00etatik aurrera, Kostkas-Miren Bihotza Bren kontra.

MENDIOLA
aroztegia S.L.U
ONTZIEN KONPONKETA ETA MUNTAIA
ISOLAMENDUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Egiburuberri poligonoa, 1. solairua
13. modulua 1p
Errenteria
Tel.: 943 39 70 84
Faxa: 943 40 42 86
carpmendiola@euskalnet.net
Euskadi Etorbidea, 53 Pasaia
Tel.:/Faxa: 943 39 27 22
carpinteria.mendiola@gmail.com



Udalbiltzako auzipetuak, epaia eman osteko agerraldian. M. RAMIREZ / ARP

# Udalbiltza beharrezkoa dela aldarrikatzera deitu dute

**Jokin Sagarzazu** Berria

Hilaren 7an jakin zuten Udalbiltzako kideek haien absoluzioa jasotzen duen epaia irmoa dela. «Bukatu da amesgaiztoa, ametsak gauzatzeko garaia da», adierazi zuten erabakiaren berri izan zutenean, prentsa ohar bidez.

Agerraldi publikoa egin zuten herenegun, eta esker ona adierazi zieten ia zortzi urte iraun duen prozesuan bidelagun izan dituzten banako eta eragile guztiei. Era berean, Udalbiltzan egin zuten lana berretsi eta etorkizunean Euskal Herriak gisa horretako instituzio baten beharra izango duela aldarrikatu zuten. «Beti esan dugun bezala, orain epai baten zigilu eta guzti diogu berriro: Udalbiltza tresna baliagarria zela, eta dela, Euskal Herrian bake eta demokrazia egoera erdiesteko eta Euskal Herria nazio gisa garatzeko. Tresna beharrezkoa, zilegia eta posiblea», nabarmendu zuen Juan Carlos Alduntzin Pasaiako alkate ohi eta *Udalbiltza auzian* absolbituak.

Jasotako babesa eskertu, eta Udalbiltzaren beharra aldarrikatzeko ekitaldi publiko bat egingo dutela jakinarazi zuen, halaber, Alduntzinek. Ekitaldia maiatzeko udal eta foru hauteskundeen ostean izango dela iragarri zuen.

Agerraldi jendetsua izan zen herenenegungoa. Bertan ziren Eusko Alkartasunako, Aralarreko eta ezker abertzaleko ordezkariak (tartean Maider Ziganda eta Haritz Salaberria Pasaia eta Lezoko alkateak, hurrenez hurren). Baita gizarte eragileetako eta sindikalgintzako kide ugari ere. Horiez gain, Euskal Herritik kanpo lanean aritu direnen laguntza gogoan izan zuen Alduntzinek. «Udalbiltza aske da. Baina ez da aske kasualitatez. Auzipetu guztien absoluzioa eta Udalbiltza instituzioaren askatasuna posible izan bada, era guztietako pertsona eta taldeen elkartasun eta salaketa dinamika emankor eta eredugarriari esker izan da».

Alduntzinek gogorarazi zuenez, Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiak berretsi baino ez du egin eragile horiek eta euskal gizartearen sektore zabal batek zekiena. Udalbiltzako kide ohiaren arabera, eskubide zibil eta politiko guztien defentsa izan da Udalbiltzaren «iparrorratza». «Eta hori egin du, betiere, Euskal Herri osoko udal hautetsien borondate askea ardatz eta muga izanik. Orain, ia zortzi urteko zigor injustuaren ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak berak berretsi du Udalbiltzaren jardueraren zilegitasuna».

Oskar Goñi Berako zinegotzi ohi eta *Udalbiltza auzian* absolbituak datozen udal eta foru hauteskundeen ostean aukeratuak izango diren ordezkari politikoei dei egin zien Udalbiltzak hasitako bidetik jarraitzera.

LESOINU
(APIRILA 2011)



ERRENTERIA

# El Beti Ona visitará mañana al Mundarro

Iban Angulo se proclamó ganador del Open Navarro de Bikejoring

:: LUISMA RODRÍGUEZ



Beti Ona. Mañana se desplaza a Astigarraga. :: ARIZMENDI

ERRENTERIA. Los equipos del Beti Ona disputan una nueva jornada, que abrirá mañana sábado en Beraun a las 9.30 el infantil participación B contra el Oiartzun; a las 11 el 1ª cadete recibe al Dunboa y a las 12.30 el infantil participación al Eibartarrak. A las 15 el infantil femenino al Vasconia y a las 16.15 el 1ª Juvenil al Arizmendi.

**Visitantes**

Como visitantes también mañana a las 10.30 el cadete femenino juega en Urnieta contra el titular y a las 11.30 el 1ª cadete B visita al Oiartzun en Ugaldetxo. A las 11.30 el femenino juega contra el Zumaiko en Zumaia, mientras que a las 16 horas el Preferente jugará en Astigarraga contra el Mundarro y a las 19.15 lo hará el 1ª Regional en Herrera contra el Asoleus. El domingo a las 11 el alevín visita en Astigarraga al Mundarro.

**Txakurkrossa Oarsoaldean**

El corredor del citado club, el lezoarra, Iban Angulo se acaba de proclamar vencedor del Open Navarro de Bikejoring. Iban lideraba la clasificacion general del Open Navarro a falta de una prueba. La última carrera , que debía disputarse en Candanchú, fue suspendida por los organizadores y debido a ello Iban se coronó campeón del Open Navarro de Bikejoring.

LEZO



Lesoinu. Ayer se pudo escuchar un cuento musical. :: ARIZMENDI

# La Banda del Tomás Garbizu clausurará hoy el Lesoinu en la plaza de Santo Cristo

LEZO. Tras la escucha ayer del cuento musical 'Ixabel' en Gezala a cargo de Leire Agirre y varios grupos del Tomás Garbizu y posteriormente de una sesión de cantos populares, la 25 edición de la Semana Pedagógica Musical Lesoinu se clausurará hoy viernes. Lo hará a las 19.30 y 20.00 horas en la Plaza del Santo Cristo o si llueve en Saldise, con canciones y melodias populares que serán interpretadas por la Banda de Música de Tomás Garbizu y por los vecinos de Lezo que se quieran sumar al espectáculo.

Como acto complementario, los próximos días 5 y 19 de mayo a partir de las 11.30 horas en la Escuela de Música Tomás Garbizu tendrán lugar sendas sesiones de musicoterapia a cargo de Marta Bocos.

OIARTZUN

# OiartzunBai reclama que primero se aborde la variante en Altzibar antes de construir más casas

:: EGARRIZ

OIARTZUN. El Ayuntamiento de Oiartzun acaba de repartir publicidad sobre las viviendas protegidas de Olalde. Es curioso, a modo de ver de OiartzunBai, que «cuando todavía no se ve atisbo de construcción alguna y en vísperas de elecciones, el ayuntamiento quiera anunciar un sorteo que aún no tiene fecha de celebración».

La planificación urbanística de Altzibar fue aprobada en 2007 y probablemente no comenzará a desarrollarse hasta 2012 «La suspensión decretada por el actual Gobierno ha retrasado el desarrollo del barrio durante todos estos años y llama la atención que los culpables del retraso lo quieran vender como un éxito» afirma Xanet Arozena.

Esta planificación contempla tres ámbitos de actuación: el núcleo histórico, Agerrealde y Olalde. Afirma OiartzunBai que de los tres, el último a desarrollar debería ser «el que el ayuntamiento quiere vender». Razonan que es el último, porque, para poder desarrollar debidamente ese ámbito, previamente, habría que hacer inversiones importantes en el barrio, entre otras, para garantizar la accesibilidad al nuevo ámbito, desarrollar la variante por detrás de Agerrealde y las rotondas tanto al principio como al final de la misma. «Esto es así porque en este momento, tal como está organizado el tráfico en Altzibar, 120 nuevas viviendas generarían una carga de tráfico que las actuales infraestructuras viarias dudosamente pueden soportar» y añaden que «no se debe hablar solo de viviendas, sino que hay que programar y solucionar los servicios y necesidades que esas viviendas requieren, cosa que en este caso tampoco se ha hecho».

Además, con el desarrollo del ámbito de Agerrealde desaparecerían los antiguos pabellones de La Pitusa donde hoy se ubica una empresa constructora. De esta manera desaparece el trasiego de tráfico que genera la misma. Por lo tanto, Arozena ha insistido en que «es evidente que el desarrollo de Altzibar requiere que primero se ejecute el ámbito de Agerrealde, que a su vez, requiere de una gran gestión por parte del Gobierno que, una vez más, ha demostrado sus limitaciones» y ha añadido que «lo más fácil es seleccionar un espacio llano y llenarlo de casas, pero eso no soluciona el barrio sino que lo complica».

OiartzunBai apoya los objetivos de la planificación global de Altzibar ya que saca el tráfico del barrio, genera aparcamientos y espacios públicos para el barrio como la rivera del río, frente a Aldapa Behekoa, o una nueva plaza y frontón en el casco antiguo. Y además, saca las actividades económicas más molestas como las de Recuperaciones Industriales Cadarso, el desguace Olalde y los pabellones de hoy Construcciones Ibargoyen. «Lo que no compartimos es que una vez más el gobierno de la Izquierda Abertzale haya decidido empezar por el tejado, generando presión al final del valle, más aún, cuando todavía no ha resuelto los tráficos de vienen dando problemas desde Ugaldetxo e incluso desde Arragua».

OiartzunBai lamenta que una actuación tan necesaria como la de Olalde se haya gestionado tan mal «está claro que Oiartzun tiene una gran necesidad de vivienda y que hay que fomentar este tipo de proyectos, pero no es menos cierto que si no se planifica y ejecuta en el orden debido se genera más problemas que soluciones».

# Xorrola ia oiartzuar guztiek ezagutzen dute

OIARTZUN. Ia oiartzuar guztiek ezagutzen dute Xorrola herri barruko autobus zerbitzua (%94,6k) eta oiartzuarren %40ak Xorrola erabili duela baieztatu du. Aztiker Ikerguneak atez ateko bilketaren asebetetzeari buruzko inkesta egitearekin batera, Xorrola herri barruko autobus zerbitzuari buruz hainbat galdera egiteko baliatu du aukera Udalak.

Herri barruko autobus zerbitzuaren balorazio positiboa egin dute herritarrek: %92ak zerbitzua ona edo oso ona dela adierazi dute. Oiartzuarrek herri barruan garraio publikoa beharrezkoa dela baieztatu dute inkesta honetan. Inkesta zoriz aukeratutako 504 oiartzuarrek erantzun dute, telefonoz, %95,5eko konfiantza mailarekin.

Udalak, beraz, zerbitzua hobetzen jarraitzeko ahalegina egiten jarraituko du. «Xorrola ia oiartzuar guztiek ezagutzen dute» ere sartzea litzateke. Aspalditik Udala negoziatzen ari da hori hala izan dadin. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio sailaren erantzunaren zain dago.

LESOINU
(APIRILA 2011)

# Birgaitze Integralerako Area izendatu dute herriko hirigune historikoa

Alde zahar osoa berritzea da helburua; eskualdeko gainontzeko herriek jaso dute izendapen hori

**Erik Gartzia**



Xabier Sanchez planaren arduraduna, Salaberria eta Poza. ERIK GARTZIA

Lezoko hirigune historikoa Birgaitzea Integraleko Area (BIA) izendatu du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak. Horrela, Oarsoaldeko lau udalerrietako alde zaharrek izendapen berbera dute.

Izendapen hori emateko arrazoia azaldu du Oarsoaldea Garapen Agentziako lehendakari Ander Pozak: «Joan den mendeko hiri hazkunde bizkorraren ondorioz, hirigune historikoak hondatzen joan dira, tartean Lezokoa». Pozak esan duenez, «administrazioaren eta bertako bizilagunen esfortzuarekin», alde zaharren narriadura zuzentzen ari da, «dagoeneko eraikita dagoena hobetzeari lehentasuna emanez».

**Laguntzak handitu dituzte**

Dagoeneko eraikita dauden etxeak birgaitzeko asmoz, Oarsoaldea Garapen Agentziaren bitartez diru laguntzak jaso ditzakete, obrak hasi aurretik. Hirigune historikoan dagoen etxebizitza baten jabeak etxea berritzea erabakitzen badu, errenta aitorpenean desgrabatzeko eskubideaz gain, itzuli beharrik gabeko diru laguntzak eta baldintza oneko maileguak eskuratzeko aukera izango du.

Eusko Jaurlaritzak lagunduko du finantzazioan. Alde batetik, udalek egiten dituzten lanak finantzatuko dituzte: obra proiektuaren kostuaren %90 arte finantza dezakete edo hirigintza obren

**Etxeen jabeek obrak egiteko kostuaren %35 arteko diru laguntza jasoko dute**

%75. Bestalde, etxebizitzen jabeek egiten dituzten lanei emango dizkieten laguntzak honakoak dira: komunitateen obrenak %5etik %10era igoko dituzte; partikularrenak, berriz, %35raino eta desgrabatzeko eskubidea (gastu partikularraren %18a) eta mailegu pertsonalak baldintza hobeetan eskuratzeko aukera emango dute.

Horiek jasotzeko Errenteria-Oreretako Olibet auzoan Oarsoaldeak duen egoitzatik pasatu behar da edo *xsanchez@oarsoaldea.net* helbidera bideratu daiteke eskakizuna. Horrez gain, 943 34 41 60 telefono zenbakira dei dezakete interesa dutenek eta Hiri Berriztapenerako Zerbitzuarekin harremanetan jarri.

**Balioa aitortu**

Haritz Salaberria alkateak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak Lezoko alde zaharrari duen balio historikoa aitortu dio: «Birgaitzea da helburua, gaur egungo funtzionaltasuna mantenduz eta biztanleek dituzten beharrei erantzunez». Gainera, garai batean bizitza gehien zuen eremua berriro hala izatea nahi dutela adierazi du Salaberriak.

BIA deklaratzeak «bultzada berria» emango lioke alde zaharraren birgaitzeari. Gogorarazi du, baina, azkeneko zortzi urteetan alde zaharreko kaleak eta txokoak (Markesane, frontoia...) berritu dituztela. Hala ere, BIA eremu izendatzea nagusiki jabe partikularrei zuzenduta dagoela zehaztu du Salaberriak.

egartzia@hitza.info

# Sistiaga Enea etxe okupatua hustuarazi dute

Gesolnor higiezin agentziarena da etxea eta bertan bizi zirenen kontra bide judiziala zabaldu zuten

**Erredakzioa**

Lezoko Kale Nagusiko 32. zenbakian dagoen Sistiaga Enea etxe okupatua hustuarazi zuten Aste Santuan. Etxe okupatuan hainbat pertsona bizi ziren. Bertan bizi zirenek hainbat lezoarren babesarekin elkarretaratzea egin zuten pasa den ostegun eguerdian Gurutze Santuaren plazan, etxetik aterarazi dituztela salatzeko.

Gesolnor higiezin agentziarena da Sistiaga Enea. Agentziak etxea bota nahi zuen, bertan etxebizitza berriak eraikitzeko, baina asmo hori bertan behera utzi zuten, legediak ez duelako baimentzen balio historikoa eta arkitektonikoa duten etxeak botatzea. Hala, joan den urteko abuztuan herritar talde batek etxea okupatu zuen eta bertan bizitzen hasi zen. «Urteetan zehar hutsik egon da etxea, erortzeko arriskuan zegoen, eta bertara sartu eta etxea biziberritzeari ekin genion», esan dute bertan bizi zirenek.

Bertan bide judiziala zabaldu zuen Gesolnor agentziak. «Uztikeria nabarmenean zegoen etxe honi bizitza emateko gure saiakerak delitu penal baten akusazioarekin ordainarazi dizkigute enpresa espekulatzaile ase ezinek zein legediaren irakurketa partzial eta interesatuak burutzen dituzten epaileek», salatu dute etxean bizi zirenek.

Okupazioa ez dela delitua nabarmendu dute Sistiaga Enean bizi zirenek, «behar baten aurrean aurrera daramagun alternatiba bideragarria baizik». Aldi berean, eskerrak eman dizkiete babesa eman dieten guztiei.

lezo@hitza.info



Hustutzea salatzeko egin zuten elkarretaratzea. HITZA

# Gandiara joango dira Aiton Bordako kideak udan

Bidaia egin nahi dutenek badute tokia oraindik; elkartearen egoitzatik pasatu behar dute izena emateko

**E. Gartzia**

Aiton Bordak Gandiara (Valentzia, Herrialde Katalanak) bidaia antolatu du ekainaren 26tik uztailaren 2ra. Bidaia horretara joan nahi dutenentzako oraindik lekua dagoela jakinarazi dute erretiratuen elkarteko arduradunek. Hala, izena emateko, astegunetan pasatu behar dute interesdunek elkartearen egoitzatik (Antonio Pildain, 3), 11:00etatik 12:30era.

**Irteerak egunero**

Bidaiaren prezioa 335 eurokoa da. Kopuru horren barruan honakoak sartzen dira: hotela (gela bikoitzean), egunero egingo dituzten irteerak (Valentziara, Elx-era, Alacantera, Calpera...) eta bidaia bera.

Bidairako jada izena emana dutenak azken ordainketa egitera joan behar dute Aiton Bordara, maiatzaren 24an, 10:30etik 12:30era.

**Hitzaldia, astelehenean**

Maiatzaren 9rako (datorren astelehenerako) hitzaldia antolatu dute Aiton Bordako kideek, bestalde. Erretiro aktiboa eta solidarioa gaiarekin Sonia Ulaziak emango du hitzaldia, 17:00etatik aurrera, Aiton Bordaren egoitzan bertan. Kutxak eta Nazaret zentroak lagundu dute Ulaziaren hitzaldia antolatzen.

# Musikoterapia saioa egingo dute bihar

Marta Bocos musika irakasle eta psikologoak emango du eskola, Lesoinuren baitako azken aurreko saioan

**Erredakzioa**

Lesoinu orain dela hilabete bukatu bazen ere, aste pedagogiko musikaleko azkeneko bi saioak egingo dituzte bihar eta hilaren 19an.

Musikoterapia saioak izango dira biak. Marta Bocos Tomas Garbizu Musika Eskolako irakasle eta Psikologian lizentziatuak emango ditu musikoterapiako eskolak.

11:30ean hasiko dira bi saioak. Musika eskolaren egoitzan bertan izango dira. Haurdun dauden emakumeek egiten dituzten erditze aurreko saioetan emango du eskola Bocosek.

Izan ere, musikoterapia oraindik sabelean dauden haurrei, zein 0 eta 3 urte arteko txikiei zuzenduta dago. Psikomotrizitatea edo amarenganako lotura lantzeko balio du.

# DANTZARI TXIKI EGUNA (MAIATZA 2011)

## Ordoxelai eta Estanix Lopez gaur aterako dira kartzelatik

**Erredakzioa** Oiartzun

25 urte espetxean pasatu eta gero, gaur askatuko dituzte Ander Errandonea *Ordoxelai* eta Estanix Lopez oiartzuarrak. 1986ko maiatzaren 17an Guardia Zibilak atxilotu zituen, eta ordutik hainbat kartzelatan egon dira. Lopezek 19 urte zituen atxilotu zutenean, eta Errandoneak 23. ETAko kide izatea leporatu zieten biei. 2001ean bete zituzten zigorraren hiru laurdenak. Lopez Castelloko (Valentzia, Herrialde Katalanak) espetxetik aterako da, eta Ordoxelai, Herrera de la Manchatik (Ciudad Real, Espainia).

Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua pozik dago albistearekin, baina eskatu du kondena beteta duten presoak eta gaixo daudenak askatzeko.

### ↓ Zenbakia

**145**

**▪ Euri litro.** Joxe Kruz Sarasolak Pikoketan duen publiometroak metro koadroko 145 euri litro jaso zituen apirilean, iazko hil berean baino 62 litro gehiago.

### ↓ Oiartzun Irratia

- **10:00etan,** ***Arguyuan*****:** 10:30ean: Elhuyar fundazioaren eskutik, *Quark* irratsaioa. 11:30ean: Hauteskunde tartea. Gonbidatua: Xanet Arozena, Hamaikabat alderdiaren alkategaia. 12:10ean: Informatika atala. 13:15ean: Bertso atala.
- **15:00etan.** Albisteak.
- **17:00etan.** *Finean nafarrak.*
- **18:00etan.** *Arguyuan* (errep.).
- **20:00etan.** Albisteak.
- **20:30ean.** *Arguyuan* (errep.).
- **21:30ean.** *Sound system.*



## GIRO PAREGABEA DANTZARI TXIKIEKIN

Herenegun ospatu zuten Lezon Dantzari Txiki Eguna. Bertan 6 eta 12 urte arteko 130 haurrek hartu zuten parte. Lau dantza taldetako dantzariak ziren: Lezoko Murixka, Errenteria-Oreretako Ereintza, Irungo Meaka eta Iruñeko Amaiur. 11:00etan bildu ziren Lopene plazan eta kalejira egin zuten. Ongi etorria egin zieten segidan talde gonbidatuei Saldise plazan. Bazkaldu ondoren, haurrentzako jolasak egin zituzten eta 17:00etatik aurrera ekitaldi nagusia egin zuten. CARRERA



Olalde eremurako planteatutako proiektuaren itxura. HITZA

## Udalak zozkatuko ditu Olaldeko etxebizitzak

**Erredakzioa** Oiartzun

Udal ordezkariak Etxebideko ordezkariekin bildu dira Altzibarko babes ofizialeko etxebizitzen inguruan hitz egiteko eta zozketaren baldintzak zehazteko. Hala, adostu dute Udala izango dela Altzibarko Olaldeko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa egingo duena.

Zozketan parte hartzeko baldintzak ere zehaztu dituzte Udalak eta Etxebidek. Etxebizitzak oiartzuarrentzako izango dira, eta ekainaren 25a baino lehen Etxebiden izena ematea nahitaezkoa izango da zozketan parte hartu ahal izateko. 2009ko diru sarrerak hartuko dira kontuan.

Udan lanak hasiko dira, eta 2.850.300 euro pasatxoko aurrekontua izango dute. Lan horiek hiru fasetan garatuko dira eta urte eta erdi inguru iraungo dutela aurreikusten du Udalak.

Olaldeko eremuan etxebizitzak eraikitzeaz gain, auzoarentzako bestelako onura batzuk ere egongo direla gogorarazi dute Udaletik: «Bidegorria, haurrentzako parkeak, aparkalekuak, Udal jabegokoa izango den lokala...».

oiartzun@hitza.info





# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## KONTZERTUA 2011 ALKIZAN

**MAIATZAK 15, IGANDEA**

"Tomas Garbizu" LUME-ko

"SUTARGI" ABESBATZA

**KONTZERTUA**

Alkizako Elizan, 10:00etan



ALKIZAKO UDALA

## ALKIZA 2011

*Lekua: ELIZAN*

Maiatzak 15, Igandea

Goizeko 10:00etan

Informazio gehiago:
*Más información en:*
**www.kutxasocial.net**

social kutxa parte de ti

18333 - 100.000 (04/11)

KONTZERTUA - *CONCIERTO*

# Pintzelkada Koralak
# *Pinceladas Corales*

Egilea / *Autor:* **SUTARGI ABESBATZA**




**Kutxa**k sustatu eta finantzaturiko jarduera
*Actividad promocionada y financiada por* ***kutxa***

gizarte kutxa zugandik zugana

# ***SAN ISIDRO 2011***

## ***Ostirala Maiatzak 13***

Arratsaldeko 5etan

Gimkama proba Alkizako Gaztetxoentzat

## ***Larunbata Maiatzak 14***

Goizeko 8retan

Mendi martxa mundiala (Ernio mendilerroko mugarrietatik pasaz)
(4 ORDUKO MARTXA)
***ANIMA ZAITEZ!!!!!!!!!!!!!!!!!!***

Arratsaldeko 5 etan

Kurpil Lasterketa 12 urtetik berakoentzat

Jarraian Gizon proba gaztetxoentzat, gurpil erraldoi batekin

Gaueko 9etan

SAN ISIDRO AFARIA:

Lekua: Ostatu jatetxea
Prezioa: 18€
Guztia ordaindu behar duena 35€
Izena emateko epea: Maitzaren 12

## ***Igandea Maiatzak 15***

Goizeko 10etan

Meza nagusia

JARRAIAN: ***SUTARGI*** abesbatzaren kontzertua (ELIZAN)

Arratsaldeko 6retan

IV. Frontenis Master txapelketako ***FINALAK***



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## MATRIKULA EPEA 2011-2012 IKASTURTEA

**IKASLE OFIZIALAK**
MAIATZAREN 16tik 27ra.

**IKASLE BERRIAK**
EKAINAREN 22tik 30ra.

## TRESNAK

Trikitixa, panderoa, pianoa, sintetizadorea, klarinetea, saxofoia, txistua, oboea, flauta, perkusioa, biolina, biola, biolontxeloa, fliskornoa, akordeoia, tronpeta, kitarra, bateria, kitarra elektrikoa, txalaparta, alboka, dultzaina.

## INFORMAZIOA

"Tomas Garbizu" Lezoko
Udalaren Musika Eskola.
Telf.: 943- 529999
tgarbizume@telefonica.net

**Bulego ordutegia**

# Herri Eskolak eta Institutuak jaieguna ospatuko dute bihar

2011/05/13
Jaiak
Nork Lezoko Hitza

Herri Eskolak eta Lezo Institutuak urteroko jaia antolatu dute biharko. Egun osoko egitaraua prestatu dute bi ikastetxeetako jai batzordeak. Honakoa da egitaraua (goizean euria eginez gero, ekitaldiak kiroldegiko kantxan egingo dituzte):

- 09:00etan: Diana.
- 09:30ean: Krosa herrian zehar.
- 10:00etatik 11:00etara: Eskolako jolastokian hainbat ekitaldi egingo dituzte: tailerrak, puzgarriak, erakusketa, serigrafia, xake partidak…
- 11:00etatik 12:30era: Jolastokian bertan, helduentzako eta haurrentzako herri kirolak.
- Herri kirolak bukatzean: Dantza emanaldia eta eskolako abesbatzaren kantaldia.
- 13:30ean: Txikien bazkaria, jangelan.
- 14:30ean: Helduen bazkaria.
- 14:30ean: Jolasak, jokoak eta ipuin kontalaria.
- 16:30ean: Modestorekin dantzaldia.

# MATRIKULA EPEA ZABALIK 2011-12 (MAIATZA 2011)



LEZO

LOS CANDIDATOS **AINHOA ZABALO (BILDU)**

# «Hay que ofrecer otro modelo de desarrollo»

**Su perfil**

**Música:** Ainhoa Zabalo Loyarte, nació el 25 de abril de 1974 en Lezo. Estudió en Pasai Lezo Lizeoa y terminó el grado medio de música. Comenzó a trabajar en el sector de servicios y en el año 1997 entró en Eroski como socia cooperativista y actualmente trabaja como jefa de tienda en Eroski Center Zarautz.

**Propuestas**

**«Planteamos 50 viviendas de alquiler en la calle Aralar»**

**Deseo**

**«No queremos un Lezo como barrio dormitorio»**



**Ainhoa Zabalo.** Encabeza la lista de Bildu. :: ARIZMENDI

:: **LUISMA RODRÍGUEZ**

LEZO. Ainhoa Zabalo es la candidata a la Alcaldía por Bildu. Carente de experiencia política, ya que nunca ha ocupado un puesto de concejal, dice que «con todas las ganas que tengo de trabajar con el pueblo y para el pueblo, estoy segura de que la misma no será un problema y supliré su falta».

**– ¿Qué balance hace de la presente legislatura que está a punto de acabar?**

– Desde mi punto de vista como ciudadana hago una valoración positiva, ya que pienso que durante estos cuatro años se ha trabajado con el pueblo y para el pueblo.

**– A su juicio, ¿Cuáles serían los principales retos que tiene que afrontar el municipio para los próximos 4 años?**

– Pienso que tenemos que ofrecer al pueblo otro modelo de desarrollo frente a las grandes infraestructuras que se están planteando desde otras instituciones, como puede ser el puerto exterior o la intermodal. Por otra parte no queremos que Lezo sea un barrio dormitorio, sino que, por contra, deseamos que sea un pueblo vivo.

**–¿Cuáles serían las propuestas más destacables de su programa electoral?**

– Pensamos en una nueva ordenación del puerto actual y la protección de la zona rural. Queremos seguir revitalizando el comercio y nuevas actividades económicas. Seguir trabajando por un Ayuntamiento más transparente y participativo, trabajar con los ciudadanos los presupuestos y hacer comisiones participativas. Y por concretar algo más, apostamos por 50 viviendas de alquiler oficial en la calle Aralar pudiendo destinar los bajos a una nueva guardería y distintos equipamientos.

También a unas 136 viviendas en las inmediaciones del campo de fútbol y el cementerio de las cuales el 75% serían protegidas.

Por mencionar otra propuesta estaríamos por la labor de fomentar y ayudar en la utilización del euskera en nuestro pueblo, subvencionando el 100% de su aprendizaje.

**– ¿Qué perspectivas de resultados contemplan en las elecciones del 22 de mayo?**

– Estamos muy esperanzados con el resultado que obtendremos en las próximas elecciones municipales del 22 de mayo, ya que hasta ahora el pueblo ha sabido reconocer a la fuerza política que está dispuesta a darlo todo por el pueblo y nosotros estamos con toda nuestra ilusión y ganas para seguir trabajando en los próximos cuatro años con y para los lezoarras.

EN BREVE LEZO

## Excursión Aiton Borda

Aiton Borda ha organizado para el 23 de mayo una excursión a Lodosa, con parada para almorzar y comprar poductos de la huerta lodosana. A las 12 desplazamiento a la localidad riojana de Galilea para visitar una champiñonera y una bodega. A las 14.00, comida en Logroño y por la tarde visita a Haro, para regresar a las 19.00 a Lezo y llegar a las 21.00. El precio es de 25 euros y se puede apuntar en la sede de 11.00 a 12.30 del mediodía.

## Escuela Tomás Garbizu

La matriculación de los alumnos oficiales para el curso 2011-12 será del 16 al 27 de mayo, tanto en las materias complementarias , como en instrumentos. Más información en Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskola, con teléfono 943529999, o correo electrónico tgarbizume@telefonica.net. La Escuela informa asimismo de que el próximo domingo 15 de mayo el Coro Sutargi dará un concierto en Alkiza, en la iglesia, a partir de las 10 de la mañana. Por último el próximo miércoles 18 la Banda de Música de la Escuela de Música participará en la semana musical Musikaste de Errenteria. El concierto será en la Plaza Xabier Olaskoaga a partir de las 18.30 de la tarde.

OIARTZUN



Zuhaitz txikien landaketa eta zaintza (bonsai) kurtsoko partaideak. :: EGARRIZ

# Honbu Japoniar Zentru Kulturala Euskal Herrian zehar errefentzi kulturala bihurtu da

:: **EGARRIZ**

OIARTZUN. Oiartzungo Honbu Japoniar Zentru Kulturala Euskal Herrian zehar errefentzi kultural bat izaten ari da, etengabe ekintza ezberdinetan parte hartzen du eta Japoniar kulturarekin loturak sortzeko bidean, kultura eskaintza honek Oiartzuar asko erakartzen ditu eta Gipuzkoako beste zenbait tokiko pertsonak ere; baita Nafarroakoak, Iparraldekoak... hurbiltzen dira Zentru Kultural honetako ekintzetan parte hartzera.

Arrakasta guzti hau, muxutruk etorritako talde gogotsu bati esker gertatzen ari da, Japon eta Oiartzun hurbiltzeko ideiarekin kurtso ezberdinak antolatzen hasi zirelarik: zuhaitz txikien landaketa eta zaintza (bonsai), Japoniar hizkuntza, Japoniar idazkera (shodo), Japoniar marrazketa (manga), lore zaintza (ikebana), japoniar sukaldea, Te-aren ospakizuna, ekialdeko gaiei buruzko konferentziak, erakusketak, Japoneráko biaiak, Arte martzial Japoniarra (Budo)...

Hauei Pilates eta Capoeira kurtsoak batu zaizkie, giro eta baldintza oso onean sartu dira Zentro Kultural Japoniarrera ekintzak eta emaitzak hoberenak lortzeko.

Aste guztian zehar izaten dira kurtsoak, lan egunetan astean bi edo hiru egunetan eta aste bukaeretan kurtso intentsiboekin osatzen dira, konferentzi eta erakusketarekin batera. Kasu askotan, Zentru Kulturaleko tokia txikia geratzen zaie antolatzen diren ekintzetarako.

Japoneko edozein gaiarekiko edo ekialdeko, artearen kezkaren bat edo galderaren bat duen pertsona orok , ez du Oiartzungo Honbu Japoniar Zentru Kulturalera etortzeari utzi behar, bertakoekin mintzatu eta poztasun osoz laguntza eta behar den informazioa emango zaie. Honbu karaez kalea 8 baxua, Oiartzunen aurkitzen da, harremanetan jartzeko 943 26 08 49 telefonoa eta honbu@kenpo-kai.com emaila.

LABUR OIARTZUN

## Iturriotz eskolako ikasle ohien bazkaria

Iturriotz auzoko eskolan ibilitako ikasle ohientzako bazkaria antolatu dute. Ekainaren 12an Ergoiengo Tolare jatetxean izango da bazkaria. Izena aurretik eman behar da Garmendi txokolategian edo Iturriozko Martin harategian (ekainaren 6a baino lehen). Izena emateko momentuan 10 euroko aurrerapena ordaindu behar da.

## Munuaundiko erromeria

Igande honetan San Isidro Eguna ospatuko dute Oiartzungo baserritarrek eta urteroko ohiturari jarraituz, arratsaldeko 5:00etan Munuaundiko gurutzearen ondora hurbilduko dira. Lehen baserritarren festa-egun handia izaten zen: goizean meza nagusia eta ondoren bazkaria; eta arratsaldetik Munuaundiko gurutzera, eta gero Txikierdira ahalzuenak dantza egitera.

**SOLUCIÓN INTEGRAL EN DESTRUCCIÓN DE DOCUMENTOS**
SEGI HIRU - centro especial de empleo
Polígono 27, Martutene - P.º Uharburu, 32, pab. 3 - 2004 Donostia
Tel. 943 460 977 - Fax 943 453 670 - segi@euskalnet.net

# MATRIKULA ZABALIK (Berriak) (EKAINA 2011)



## Laburrak

### Rotetaren kontra 3-1 galdu dute OKEko mutilek

**OIARTZUN** › Partida arraroa izan zen oiartzuarrentzat, ia dena kontra izan baitzuten. Taldekoak eta zaleak ere haserretu egin ziren epailearen lanarekin. Saiatu ziren, baina OKEko mutilek ez zuten garaipena eskuratzerik izan. 3-1 bukatu zen norgehiagoka. Oiartzuarren gola Erik Alvaradok sartu zuen.

### OKEko neskek 5-1 irabazi diete Gasteiz Cup-ekoei

**OIARTZUN** › Kontrakoa badirudi ere, partida lehiatua izan zen. Oiartzuarrak indartsu atera ziren zelaira, baina gasteiztarrak ez ziren kikildu. Atsedenaldira 2-0 irabazten joan ziren oiartzuarrak, eta azkenean 5-1 bukatu zen partida. Oiartzuarren golak Irantzu Etxebestek, Alazne Bengoetxeak eta Ane Gaskuek (3) sartu zituzten.

### Oiartzunek eta Power Rangersek, irabazi

**OIARTZUN** › Areto futboleko Gipuzkoako Bigarren Mailako bi taldeek irabazi egin dute asteburuko jardunaldia. Oiartzunek, Bilkoin Legorreta Eredu taldearen kontra jokatu, eta 1-0 irabazi zuen. Power Rangersek, 2king Uak taldea izan zuen aurrean, eta 4-1 irabazi zuen. Seigarren da Oiartzun, eta hamargarrena Power Rangers.

### Herriarteko Txapelketaren itzulikoa, ostiralean

**OIARTZUN** › Gipuzkoako Herriarteko Pala Txapelketaren itzuliko partida ostiralean jokatuko dute Txosteko pilotariek, 20:00etan, Madalensoron. Joanekoan, bana berdindu zuten Ordiziarekin. Herritarrei partidara agertzeko deia egin diete: «Zaleen animoak eskertuko ditugu».

### Allerruk 2-3 irabazi dio Irun CF 1902ri

**LEZO** › Erregional Preferente Mailako Allerruk denboraldiari agur esan zion pasa den asteburuan. Zapore onarekin bukatu dute liga zuri-berdeek, Irun CF1902ri 2-3 irabazi baitzioten. Lezoarrek zazpigarren postuan bukatu dute liga, 43 punturekin. Lehenengo itzuli kaxkarra egin zuten arren, bigarrenean sailkapenean gora egin dute Egoitz Etxarriren mutilek.

### Allerru Bren eta Oiartzun Bren porrotak etxean

**FUTBOLA** › Oiartzun Bk oso zaila du Preferente Mailara igotzea. Izan ere, herenegun 1-5 galdu zuten Ilintxa lehen sailkatuaren kontra. Laugarren postuan dira orain eta azkeneko partida irabazi behar dute eta Eibartarrak-ek galdu egin behar du. Bestalde, Allerru Bk ere galdu egin zuen etxean, 2-3, Vasconiaren kontra (Oiartzun Bren datorren arerioa da). Hemezortzi puntu dituzte lezoarrek.

### Ipuin kontaketa saioa Pello Añorgarekin, etzi

**OIARTZUN** › Manuel Lekuona Udal Bibliotekan ikasturteko azkeneko ipuin kontaketa izango da etzi, Pello Añorgarekin. 17:30ean izango da, laur urtetik gorako haurrentzat. Uda ondoren jarraituko dute saioekin.

## Oiartzun Irratia

- **10:00etan,** *Arguyuan.*
- 10:30ean: *Quark.*
- 11:30ean: Elkarrizketa tartea.
- 12:10ean: Informatika atala.
- 13:15ean: Bertso atala.
- **15:00etan.** Albisteak.
- **17:00etan.** *Finean nafarrak.*
- **18:00etan.** *Arguyuan* (errep.).
- **20:00etan.** Albisteak.
- **20:30ean.** *Arguyuan* (errep.).
- **21:30ean.** *Sound system.*

## Lezoko udaleku irekietan izena emateko epea ireki dute, 27ra arte

**Erredakzioa** Lezo

Uztailaren 1etik 29ra egingo dituzte Lezoko udaleku irekiak (ordutegia 09:30etik 13:30era izango da). Bertan izena emateko epea hilaren 27an bukatuko da.

3 urtetik 10 arteko haurrentzako zuzenduta daude udalekuak. Izena emateko tokia Udalaren Informazio Bulegoa da, 08:30etik 13:30era. 75 euro ordaindu behar dira (familia ugariek 60 euro). 220 toki daude, eta hori gainditzen bada, zozketa egingo dute. Haurtzaindegi zerbitzua ere eskainiko dute lan egin behar duten gurasoentzako. 08:00etatik 09:30era izango da, eta 50 euro ordaindu behar dira.

## Datorren ikasturtean musika eskolan izena emateko aukera, zabalik

Tomas Garbizun ikasi nahi dutenek hilaren 27ra arte dute izena emateko epea, taldeetan zein instrumentuetan

**Erredakzioa** Lezo

Tomas Garbizu Musika Eskolan izena emateko epea hilaren 27ra arte dago zabalik. Instrumentu eskoletan zein taldekakoetan eman daiteke izena. Informazio gehiago nahi duenak, musika eskolara deitu dezake (943 52 99 99) edo *tgarbizume@telefonica.net* helbidera mezu bat bidal dezake.

lezo@hitza.info



Handitze lanak Kontzejupe aldera egingo dituzte. NAGORE VEGA

## Jantokirako esleitze proposamena egin du Hirigintzak

**Erredakzioa** Oiartzun

Elizalde eskolako jantokia handitzeko lanak Alzola SL enpresak egingo ditu. Esleipen proposamena pasa den astean onartu zuen Hirigintza Batzordeak. Hiru enpresa aurkeztu dira lan horiek egiteko eta eskaintzarik onena Alzolarena izan dela jakinarazi dute Udaletik: «463.860,95 euroko aurrekontua izango dute lanek eta bost hilabeteko epean bukatuko dituzte».

Lanak udan hasiko dituzte, 2010/2011 ikasturtea bukatu ondoren. Urtea bukatzerako, Elizalde eskolako jantokia handitzeko lanak bukatuko dituzte, Udalaren aurreikuspenen arabera.

Lanak Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean finantzatuko dituzte. Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik diru laguntza lortu du. Honela, %40a Udalak finantzatuko du, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak.

Lanak egiten direnean, Elizalde eskolako jantokiak 505 metro koadro izango ditu, orain baino 150 metro koadro gehiago. Lanak gaur egun eskola barruan jantokia dagoen eremuan egongo dira, eta handitze lanak Kontzejupe aldera egingo dituzte.

Lan horiekin batera, bestelako lan batzuk ere egingo dituztela jakinarazi dute Udaletik: «Sukaldea tokiz aldatuko dute, aldagelak lekualdatuko dituzte, elbarrientzako komuna egingo dute eta bazterreko horma bota eta berria eraikiko dute. Orain, solairu bakarrean egingo dira lanak, baina etorkizunera begira, bigarren solairu bat eraikitzeko aukera izango da, beharrak eskatuz gero».

Elizalde eskolako jantokia handitzeko beharra nabarmena da, eskolan jantoki zerbitzua erabiltzen duten ikasle guztiak ez baitira sartzen gaur egungo jangelan eta ondorioz, bi tokitan ematen da zerbitzua (Elizalde Herri Eskolako ikasleei eskola eremu barruan eta Elizalde Institutuko ikasleei, eskola eremutik kanpo Udalak alokatuta duen lokal batean).

Lanak bukatzen direnean, jantokian bazkaltzen duten ikasle guztientzako tokia egongo da eskola barruko jantoki berrian.

oiartzun@hitza.info

Oarso bidasoko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · oarsobidasoa@hitza.info / Tel.: 943-34 03 30



# "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA



## MUSIKASTE KONTZERTUA 2011

**MAIATZAK 18, ASTEAZKENA**

**"MUSIKA BANDA" KONTZERTUA**
**Errenteriako Xabier Olaskoaga Plazan, 18:30etan**

MUSIKASTE Errenterian
(MAIATZA 2011)

# XVII. mendetik hasi eta gaur egunera arteko musika izango da Musikasten

Jose de Vaquedano, Juan Andres de Lombide eta Yon Oñatibia konpositoreak omenduko dituzte

**Aizpea Amas** Errenteria-Orereta



Iaz eskualdeko musika eskoleko ikasleek egindako emanaldi bat. A. AMAS

Jose de Vaquedanotik hasi eta Josu Elberdin arte. Musika erlijiosotik hasi eta musika elektronikora arte. XVII. mendeko musikatik hasi eta gaur egunera arte. Kolore askotariko musika entzun ahal izango da bihartik hasi eta datorren larunbatera arte Musikasten. Hiru protagonista nagusi ere izango ditu: Jose de Vaquedano bera, Juan Andres de Lombide eta Yon Oñatibia oiartzuarra. Izan ere, hirurak omenduko dituzte euskal musikaren astean.

Hain zuzen, Oñatibiaren jaiotzaren mendeurrenari begira, bi ekitaldi nagusi antolatu dituzte: hasierakoa eta bukaerakoa. Musikaste estreinatzeko, bihar, musikagile oiartzuarrari buruzko hitzaldia emango dute Jose Ignacio Ansorena Donostiako Udal Txistulari Bandako zuzendariak eta Jose Luis Ansorena Musikasteren fundatzaileak.

Datorren larunbatean, berriz, Musikasteren azken ekitaldia oiartzuar sortzailea omentzeko egingo dute. Bertan, Oiartzungo eta Errenteria-Oreretako txistulari eta abesbatzek parte hartuko dute: Lartaun, Oinarri eta Andra Mari abesbatzek, eta Lartaun, Ereintza eta Errenteriako Udal txistulari taldeek. Horiekin batera, Ereintza Dantza Taldea ere taularatuko da.

Atzo aurkeztu zuten XXXIX. Musikaste, eta bertan izan ziren antolatzaile eta laguntzaileen ordezkariak: Jon Bagues Eresbileko zuzendaria, Mari Carmen Garmendia Andra Mari Abesbatzako presidentea, Juan Carlos Merino Errenteriako alkatea, Maria Jesus Aranburu Aldundiko Kultura diputatua eta Iñaki Rekalde Kutxako ordezkaria.

Garmendiak nabarmendu zuen Musikaste «sendotuta» dagoela, eta krisiak krisi Eresbilek ahalegin handia egin duela maila mantentzeko. Gainontzeko ordezkariek zoriondu egin zituzten antolatzaileak, eta laguntzeko ahaleginetan jarraitzeko asmoa dutela azaldu zuten.

Baguesek eman zituen programaren gaineko xehetasun guztiak, eta Yon Oñatibiari buruzko emanaldien berri ematez gain, beste ekitaldiak ere azaldu zituen: Jose de Vaquedanoren monografikoaren aurkezpena, *El carnaval del Conde* XVII. mendeko komedia musikalaren aurkezpena Juan Andres de Lombide elgetarraren oroimenez, eta egungo konpositoreen estreinaldi nagusiak (Alberto Etxeberria, Javier Busto, Josu Elberdin, Vytaus Miskinis, Albert Alcaraz eta Felix Ibarrondo).

aamas@hitza.info

## Egitaraua

- **Bihar.** Hasierako ekitaldia, 19:00etan, udaletxeko Areto Nagusian. 20:00etan, Itxaso Trio Mikelazulon. 23:30ean, Jean Marie Ecay Trio, Limericken.
- **Etzi.** Eliza musika Jasokundeko Andre Mariaren elizan, 11:00etan. 12:00etan, Udal Txistulari Taldea udaletxeko arkupeetan. 13:15ean, Errenteria Musikaleko Banda, Foru plazan.
- **Astelehena.** Musika garaikidea Sigma Project taldearekin. Bi estreinaldi izango dira: Felix Ibarrondoren *Aikan*, eta Alberto Etxeberriaren *Branas*. Niessen kulturgunean, 20:00etan.
- **Asteartea.** Ganberako musika, Lauder Ensemblerekin: Jesus Aranbarri, Jesus Guridi, Jose Franco, Maurice Ravel eta Anatoly Lyadov. 20:00etan Errenteria Hiria Kulturgunean.
- **Astelehenetik ostiralera.** Errenteria Musikal, Pasaia Musikal eta Lezoko Udal Musika Eskolako taldeak, 18:30ean, Xabier Olaskoaga plazan.
- Hurrengo egunetako ekitaldiak *errenteria.hitza.info*-n.

# Presoen aldeko mobilizazioak egingo ditu LABek

Oarsoaldeko eta Bidasoko enpresetan mobilizazioak deituko ditu, sakabanaketaren kontra

**Erredakzioa**

«Euskal presoak etxera» aldarrikapenarekin bat egiten dutela, eta hortaz, eskaera hori Oarsoaldeko eta Bidasoko hainbat lantegietara eramango dutela jakinarazi zuten atzo goizean LABeko eskualdeko ordezkariek, Errenteria-Oreretako Foru plazan egin zuten agerraldian.

Zorion Ortigosa eta Kristina Getek hartu zuten hitza sindikatu abertzalearen izenean, eta LAB sindikatuak «Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aldarrikapenekiko konpromiso zintzoena» adierazten duela azaldu zuten.

### Azken ostiralerako deialdia

Hala, euskal presoak etxeratzea aldarrikatzeko Oarsoaldeko eta Bidasoko hainbat lantokitan deituko dituzten mobilizazioez gain, azken ostiraletan herrietan euskal presoen alde egiten diren elkarretaratzeetan parte hartzeko deia luzatu zieten herritarrei.

LAB sindikatuko bi ordezkariek Frantziako eta Espainiako gobernuen jarrera salatu zuten: «Euskal Herrian bake iraunkor eta egonkorra lortzeko oinarri sendoak jartzen ari garen honetan, ukazioan oinarrituta den eta sufrimendua baino ez dakarren espetxe politika indarrean mantentzen dutelako». Politika horren baitan, «biziarteko zigorra, kanporaketak eta horrek dakarren tortura eta inkomunikazio arriskua, edo sakabanaketa politikak joan-etorrietan senide eta lagunei eragindako istripuak» kokatu zituzten.

Osasun eskubidearen ukazioa ere izan zuten hizpide. «Preso gaixoak espetxean mantentzea Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin amaitu nahi duen politika ankerraren erakusle bortitzetako bat da», salatu zuten, eta Mikel Ibañezen adibidea nabarmendu zuten: «Espetxe politika krudel honek eraman du heriotzeraino euskal preso ohia».

Agerraldian, aipamen berezia jaso zuten 25 urte espetxean eman ondoren joan den astearteaan etxera itzuli ziren Estanis Lopez eta Ander Errandonea oiartzuarrek, «euskal presoei ezartzen zaien biziarteko zigorraren adibide baitira».

Errenteria-Oreretako Manu Ugartemendia euskal presoa ere gogora ekarri zuten. Ugartemendia maiatzaren 2az geroztik gose greban da kanporatua izateko arriskua dela eta. Ugartemendiak bihar beteko du Frantziak ezarritako zigorra, eta LABeko kideen arabera, «Frantziatik kanporatuz gero, inkomunikatua eta torturatua izateko arriskua du». Horren harira, manifestazioa deitu du Oreretako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Manifestazioa, gaur, 20:00etan abiatuko da, Herriko Enparantzatik.

Agerraldia amaituta, LABeko ordezkariek ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten Zumardian.

errenteria@hitza.info



Sakabanaketaren kontra elkarretaratzea egin zuen LABek atzo. I. ZARATE

## Laburrak

### Gazte Eguna antolatzeko bilera hilaren 24an

**ERRENTERIA-ORERETA ›** Uztailera begira izaten den Gazte Eguna dela eta, jaialdi hori antolatzen hastekoak dira. Lehen bilera hilaren 24an izango da, 19:00etan, Patxikun. Gazte guztiei egin diete deia bertan parte hartzeko.

### Diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

**ERRENTERIA-ORERETA ›** Euskararekin zerikusia duten diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udaleko Euskara Departamenduak. Urtero egiten diren jardueretarako ekainaren 7an amaituko da eskaera egiteko epea, eta jarduera puntualen kasuan, jarduera egin baino hilabete lehenago. Arauak eta eskaera orria Euskara Departamentuan eta *www.errenteria.net*-en daude.

### Iñigo Legorburu hirugarrenez garaile Altzan

**ERRENTERIA-ORERETA ›** Iñigo Legorburu oreretarrak lehen saria irabazi du Altzako bertsopaper lehiaketan: hirugarren aldia da segidan, sari hori eskuratzen duela. Legorburu *Lau haizetara eskultura naiz* bertso sortarengatik izan da txapelduna. Epaile gisa Unai Elizasu gaijartzailea eta Juan Mari Irigoien idazlea aritu dira. Bizarrain euskara elkarteak antolatzen du lehiaketa.

# AMAIERA KONTZERTUA
# CONCIERTO DE CLAUSURA
maiatzak 29 mayo. 19:00. Alderdi Eder

**Banda parte-hartzaileak Bandas participantes**

Udalaren Musika eta Dantza Eskola Escuela Municipal de Música y Danza

- Banda
- Banda Txiki
- Grupo de Viento Adultos
- Banda Municipal de Txistularis

Harmonie Bayonnaise

Banda Irun

**Abesbatzak Coros**

Udalaren Musika eta Dantza Eskola / Escuela Municipal de Música y Danza

- Coro Txiki abesbatza
- Helduen abesbatza / Coro de Adultos
- Coro Atotxa abesbatza

Aita Donostia

Alaia

Bergarako Musika Eskola / Escuela de Música de Bergara

Coro Easo abesbatza: Cum Jubilo

Coro mixto Donosti Ereski abesbatza mistoa

Donostiako Orfeoia / Orfeón Donostiarra

Ekintza abesbatzako hainbat / Varios del coro Ekintza

Ezoziko Ama

Goratzar

Gure bizitza

Gurutziaga

Hodeiertz

Kantakidetza

Kantuz Bizi

Lezo

Mutrikuko Udal Musika Eskola Abesbatza / Coro de la Escuela de Música Municipal de Mutriku

Agenda ›

# ROMPEOLAS Donostia (MAIATZA 2011)

## Ekitaldiak →

### Musika

- **Andoain.** Devil Doll. Gaur, 22:30ean, Bastero kulturgunean.
- **Anoeta.** Emon eta Skapando. Bihar, 23:00etan, gaztetxean.
- **Arrasate.** Seizoro eta The Killministers. Bihar, 23:00etan, gaztetxean.
- **Astigarraga.** Saxofoi alardea. Bihar, 19:00etan, Barandiaran plazan.
- **Azkoitia.** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur, 19:30ean, Baztartxo antzokian.
- **Bergara.** Mursego eta Ain1. Gaur, 22:00etan, gaztetxean.
- **Donostia.** Los Perros del Boogie. Gaur, 20:30ean, Doka kafe antzokian. Sarrerak, 10 euroan.
- **Donostia.** Wha Wha Buga Band. Gaur, 21:00etan, Leize Gorria tabernan.
- **Donostia.** Blaka, Esne Beltza, DZ. Gaur, 22:00etan, Bidebietako frontoian, Txanpontxo jaietan.
- **Donostia.** Moby Dick. Gaur, Be Bop tabernan.
- **Donostia.** Depedro. Bihar, 20:30ean, Doka kafe antzokian. Sarrerak, 12 euroan.
- **Donostia.** Elkartasun Eguna: La Pop'lla, CC627, Fiachras, Achtung eta Never Surrender. Bihar, 21:30ean, Añorgako zineman.
- **Donostia.** Dominium, Dawnmaster eta Angelus Apatrida. Bihar, 21:30ean, Studio 21 aretoan.
